

Herririk herri

1983ko uholdeek urez estali zituzten lurreta,
Matiena eta Berrizko hainbat gune >4



Jaiak 2013

Elorrio eta
Izurtza



“Hain apustu
indartsuaren
ostean dena
bertan behera
gelditzea ez dugu
ulertzen” >15

> Ruben Perez txirrindulari zaldibartarra
talde barik geratuko da
Euskaltel-Euskadik bere agurra
iragarri eta gero

> Aurrera jarraitzeko esperantza
duela dio, baina beste talde bat
topatzeko gaitz duela

2011ko aurrekontuak luzatu ditu EAJk >2

“Arazo partidistak” direla-eta, Durangoko opo-
sizioko alderdiekin 2013ko aurrekontuak nego-
ziaztea “ezinezkoa” egin zaiola azaldu du EAJk.
Beraz, 2011ko aurrekontuak bigarren urtez lu-
zatu dituzte.

Elizalden kanpoko igerilekuak eraikitzea erabaki du udalak >6

Elorrioren, uztaileko udalbatzarrean erabaki zu-
ten Elizalden kanpoko igerilekuak eraikitze-
ko proiektua onartzea. Herriarrei gaiaren ingu-
ruan galdetzeko inkestetan emaitzak manipu-
latzea leporatu dio Bilduk EAJri. Instalazio be-
rrietan hiru igerileku eraiki gura dituzte. Ta-
berna bat ere ipini nahi dute.

A. Urreta podología

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Alina Urreta Jainaga

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga 19, behea - 946 816 673 - lurreta
www.zarateyelexpe.com

lurreta > 2

500.000 euro bideratuko dituzte
zazpi inbertsio finantzatzeko

Durango > 3

Larrinagatzuko bidea zabaldu
dute, sei hilabete eta gero

Durungaldea > 4

100.000 euro gehiago eman
dituzte gizarte laguntzetarako

Durungaldea > 4

Datozen urteetan saharaiak
etxean hartzeko dei egin dute

Herririk herri

> IURRETA

500.000 euro bideratuko dituzte inbertsioetarako

> A. B.

Aurrekontu-egonkortasun Legearen eraginez, udalek iazko soberakinak zorrak kitatzeko erabili beharko dituzte. Ekaineko foru-arau batek legea malgutu du. “Bizia eman digu honek. Egin beharreko lanak ziren, eta diru hori barik ezingo genituzke egin”, adierazi du Iñaki Totorikaguena alkateak. Horretara, kreditu aldarazpen bi onartu dituzte, bata 200.000 eurokoa, zorraren zati bat amortizatzen; eta bestea, 500.000 eurokoa, zazpi proiektu bultzatzeko: Orozketako ur-hornidura sarearen 2. fasea, Maspeko biribilgunea amaitzea eta kalea asfaltatzea, Arriandiko industriagunean espaloioak konpontzea, Mallabarrenan pertsona nagusientzako ariketa gunea egitea, Bidebarrietako lokalak egokitzea, Andaparape kalea margotzea, eta udal artxibo eta agiriak inbertariatzea, katalogatzea eta digitalizatzea.

> DURANGO

2011ko aurrekontuak luzatzea erabaki du EAJk

“Arazo partidistak” izan direla dio EAJk; oposizioko alderdi batzuek gogor kritikatu dute

> A. BASAURI / J. GUENETXEA

EAJren gobernu taldeak erretiratu egin du bere aurrekontu egitasmoa, oposizioko talde guztiekin berba egin arren “ezinezkoa” egin zaiolako oposizioarekin akordioa lotzea. Beraz, 2011ko aurrekontuen luzapenarekin jardungo du bigarren urtez Durangoko Udalak. Horrela jakin eragin du EAJk ohar baten

bitartez. Gobernu taldearen ustez, 2013. urterako aurrekontua edukitzea izango litzateke krisiari aurre egiteko tresnarik onena. Baina, “ahaleginak ahalegin, oposizioak ez du honetarako aukerarik eman”. Urte hasieran hasi zen udalbatza osatzen duten alderdiekin hitz egiten EAJ, baina “arazo partidistak medio, ez du modurik izan akordiorik lor-



tzeko” eta, azkenean, erretiratu egin behar izan ditu 2013ko aurrekontuak. “Oporren bueltan hasiko gara berririo ere datorren urteko aurrekontuak lantzen”.

Oposizioaren iritzia

EH Bilduk (Bildu eta Aralar) akordiorako borondate falta egotzi dio EAJri. Azaldu dutenez, jeltzaleek aurrekontu proposamena aurkeztu eta gero, EH Bilduko zinegotziek gobernu taldeari batzartzeko dei egin zieten, eta batzar bakarra egin zuten. Ezker Abertzaleak dioenez, 7 milioi euro inguru daude beste urte batzuetan onartu eta garatu bako proiektuetan: “Momentu honetan ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea eta durangarren beharrezanetan inbertitzea”.

Pilar Ríos zinegotzi sozialistak kritikatu duenez, aurrekontuen luzapena EAJk akordioetara heltzeko duen ezintasunaren ondorio da. “EAJk uztailaren amaieran erretiratu zuen aurrekontuen zirriborroa, eta inor aintzat hartu barik dihardu, hauteskondeek eman ez zioten gehiengo absolutua balu bezala. Krisiari aurre egiteko

Durangok “lidergo politikoa” behar duela adierazi du: “Lan-gabetuak kontratatzen laguntzeko dirulaguntzak, lanerako prestakuntza zabaltzea langabetuak birziklatzeko, eta ekintzaleentzako laguntzak dira hartu beharreko neurrietako batzuk”. Ríosen berbatan, urtero herrian sortzen diren beharrezan eta larrialdiei erantzuteko gai izan behar da udala, eta Larrinagatxuko lur-jausia edota Landako eta Zabalarako eskola publikoen egoera eman ditu adibide sozialistak.

PPko zinegotzi Juan José Gastañazatorrek gobernu taldea beharrean, oposiziotik beste alderdi batzuek izan duten jarrera kritikatu du: “Oposizioko alderdi batzuek axolagabekeria jokatu dutela deritzot”. Alderdi Popularra alegazioak aurkeztu dituen oposizioko talde bakarra izan dela adierazi du: “Maiatzaren 6an aurkeztu behar ziren alegazioak, eta epea luzatuta ere, guk bakarrik aurkeztu genituen. Alderdi batzuetan ez al dago adostasunetara heltzeko interesik? Egoera honen aurrean, EAJk aurrekontuak luzatzea beste aukerarik ez du izan”.

> ABADIÑO

Kofradiei buruzko argazki lehiaketa udalaren 2014ko egutegirako

2014ko udal egutegirako argazkiak aukeratzeko lehiaketa antolatu du Abadiñoko Udalak. Herriko kofradiei buruzko argazkiak dira lehiaketara bidali beharrekoak: Gaztelua, Traña, Muntzaratz, Mendiola, Gerediaga edo Sagastan hartutakoak. Urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak, lehiaketa@abadino.org helbidera bidalita. Udalak aurreratu duenez, azaroaren 6an udalaren webgunean argitaratuko dituzte argazki irabazleak.

Urki-Hegoalde saihesbideko bigarren fasea adjudikatuta

> M. O.

Udalak adjudikatu ditu Urki-Hegoalde saihesbidea egiteko bigarren fasearen obrak. Milioi bat euroko kostua edukiko du, eta Lasuen enpresak garatuko ditu lanak. Urtebeteko epea edukiko du enpresak eskatutakoa amaitzeko. Durangoko barne trafikoa arintzea da proiektu osoaren helburua. Durangoko kanpo eraztuna lez ezagutzen dena ixtea ekarriko du horrek. Hala, Gasteizko bidetik datozenek, Elorriorako bidea kanpotik hartu ahal izango dute. Besteak beste, Larrasoloeta eta Juan

Itziar auzuneetakoek igarriko dute aldaketa.

2011n hasi ziren Urki-Hegoalde saihesbideko lanak, lehenengo faseagaz. Orduan ere milioi bat euroko gastua izan zen. Oraindino beste fase bi geratuko dira egiteko, proiektua lautan banatuta dago-eta.

Espaloia lazten

Bestalde, udala Antso Estegiz kaleko espaloian obra egiten hasi da. Baldosak lazten dabilta Erretentxu eta Larrasoloeta artean, lurra labainkorra zela-eta. Bustitzean arazoak sortu izan direla esan dute.





ALBERDI

DURANGO

Askatasun etorbidea 1 - 94 681 76 58 Durango

ODOLSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas

Alberdi Harategia

Bertako Okela



ALBERDI

Denetarikoa CATERING zerbitzuak

Aurretiaz prestatutako janariak

Larrinagatxuko bidea prest, sei hilen ostean

Otsailean lurjausia gertatu zen Larrinagatxun

> MARKEL ONAINDIA

Larrinagatxuko errepeidea zabalik dago abuztuko lehenengo astetik. Otsailaren 15ean lurjausi handi bat gertatu zen. Geroztik, konpontzeko proiektua egin dute, eta hilabete honetan amaitu dituzte obrak. Horrela baieztatu dute udaleko informazio zerbitzuek. 315.300 euroko kostua eduki du errepeidea konpontzeko egitasmoak, eta kopuru horren %54 Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaategaz ordaindu dute. Beraz, udalak 145.000 euro ordaindu behar izan ditu.

80 eta 90eko hamarkadetan Fumbarri enpresak inguru horretan zepaz eta hondarrez egindako lur-betetzetik etorri egin zuen luizia. Udal ordezkariak adierazi zutenenez, 10.000 m3 lur baino gehiago jausi zen. Gainera, arbola batzuk ere etorri ziren goitik behera, eta Bitañorako bidea ixtea ekarri

zuen horrek guztiak. Luiziak erreka estali zuen eta, ondorioz, urak gainezka egin eta bidea apurtu zuen.

Konponketa luzerako zen

Lurjausia gertatu eta hurrengo egunean Aitziber Irigoras alkateak eta Mari Jose Balier alkateordeak bisita egin zuten ezbeharraren lekura. Teknikariak eta geoteknia eta lurra- ren kutsadura arloko adituek egindako azterketak erakutsi zuten, iazko euriteen ondorioz lur-betetzak ur asko xurgatu zuelako eta lur horien azpiko drainatzea eskasa zelako jazo zen mugimendua.

Azterketa eginda, bidea konpontzeko luze joko zuela aurreikusitu zuten. Pilatutako lur guztia kendu eta erreka bere lekura eroatea izan da obraren funtzio nagusia. Horren guztiaren ostean zabaldu dute errepeidea.



Larrinagatxuko bidea, lurjausia gertatu eta gero, otsailean.. Kepa Aginako.

Pochutako biztanleak babesteko sinadurak

> M. O.

Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak Pochutako (Guatemala) biztanleak babesteko deia egin du, euren aldeko idatzi bat sinatuta. Durangoko erakundeak laguntza emateko proiektuak garatzen ditu Pochutan, eta sarritan ohartarazi izan du hango biztanleen egoera larriaz. Sinaduren bidez, eskaera zehatza egin gura diote Guatemala-ko gobernuari: “Boterekerien aurrean, Pochutako herritarrei benetako babesa emateko eskatzen diegu”. Bateginezen arabera, Pochutako bizilagunek ezin izan dituzte zerbitzu publikoak erabili, eta gainera, ez dute giza eskubideen bermea aldarrikatzerik izan.

Irailean, Guatemalako Madril- en daukan enbaxadan aurkeztuko dituzte sinadurak. Sinatzeko, bateginez.blogspot.com.es webgunera jo behar da.

> OTXANDIO

Uren Jaitsiera martxarako izena emateko aukera hilaren 11ra arte

Izena aurrez emanda, hiru euro merkeagoa da

> JOSEBA DERTEANO

Miru-Gain Mendigoizale Elkartek Uren Jaitsiera iraupen luzeko ibilaldiaren laugarren ekitaldia antolatuko du irailaren 14rako. Hilaren 11ra arte dago aurrez izena emateko epea: federatuentzako 12 euro eta fe-

deratu gabekoentzako 17 euro. Ibilaldiaren egunean bertan ere apuntatu daiteke, baina hiru euro garestiagoa izango da: 15 eta 20 euro, hurrenez hurren. Izen-ematearen gaineko xehetasunak honako gune honetan daude: mirugain.wordpress.com.

> GARAI

Harrera ona eduki du udan ipinitako Zubiaurre anaien erakusketak

Asteburu honetan kenduko dute erakusketa, eta alkateak esan du harrera ona eduki duela

> M. O.

Zubiaurre anaiek duela 100 urte ateratako argazkiekin erakusketari ipini dute aurtengo udan, Garain. Berezia izan da erakusketa, herriko hainbat eraikinetako balkoietan kokatu dituztelako argazkiak, tamaina handian.

Erakusketa, jaietan sarri komentatutakoa izan zela adierazi du Sarrigoitiak

47 kilometroko luzera eta 2.400 metroko desnibel positiboa dituen ibilbidean zehar herria ureztatzen duten inguruko mendiak igaroko dituzte. Oinezkoek 07:00etan ekingo diote ibilbideari herriko plazatik, eta korrikariak 08:00etan. San Bernabe, Motxotegi, Altun, Saibi, Urkiolamendi, Anboto, Izpizte, Orixol eta Mirugain mendiak igaroko dituzte, Otxandiora itzuli aurretik. Urkiolako Santutegiaren ondoan anoa postua ipiniko dute askotariko edari eta janariagaz.

Asteburu honetan kenduko dute bilduma, eta harrera ona eduki duela esan du Gontzal Sarrigoitia alkateak. “Ikusi da jendea inguruko herrietatik etorri dela argazkiak ikustera”, azaldu du alkateak.

Jaien aurretik ipini zuten erakusketa, eta jaietan sarri komentatutakoa izan zela adierazi du Sarrigoitiak. Esate baterako, bertso saioan ere argazkien inguruan jardun zuten kantuan bertsolariak. Margolariak ziren Zubiaurretarrak, baina argazkigintzan ere ibili ziren Garain.

> ATXONDO

Musikagaz itxiko dute igerilekuen denboraldia

> J. D.

Uztailetik aurrerako egunak gehienak eguzkitsuak izan dira kanpoko igerilekuen mesederako. Eguzkia ez ezik, tabernako kudeatzaileek antolatutako askotariko ekitaldiak ere erakar- garriak izan dira bainulariak Atxondoko igerilekura hurre- ratu zitezen. Denboraldia amaitzeko falta diren asteburu bietan ere izango da zertaz gozatua. Esaterako, irailaren 14an, denboraldiari agur esateko musika jaia antolatuko dute lau talderekin: Ghetto, Trastorno, Silicosos eta B.E.K. “Denok elkarrekin denboraldiari agur esateko modua izango da”, adierazi du Ane Zarate tabernako kudeatzaileetako batek.

Datorren astebururako ere kontzertuak antolatzeko asmoa dutela iragarri dute nahiz eta oraindik taldeen zerrenda erabaki barik egon.

> MALLABIA

Iñaki Lopategik irabazi du idi proba txapelketa

> JONE GUENETXEA

Asteon jokatu dute Mallabiko XXV. Idi-proba Txapelketako finala. Iñaki Lopategik eskuratu du garaipena 35 untza eta 1,42 metroz. Alegria izan da bigarren 35 untzagaz. Hirugarren Taberna Goieta izan da. Rafa Alegria, berriz, laugarren postuan gelditu da. 11 parte-hartzailek jardun dute aurtengo jaietako idi probetan. Jaien antolatzaileek azaldu dutenez, proba “onak” izan dira, nahiko parekatuak. Jendeak ere “polito” erantzun duela gaineratu dute.

Jaien balorazioa

Idi-proben sailkapenagaz, jaietako amaiera eman diete Mallabian. Azaldu dutenez, jaiak giro onean ospatu dituzte, denetarik apur bat izan dute-eta: kirola, kantua, dantza, jolasak... Eguraldi ederrarekin ospatu dituzte aurtengo Mallabiko jaiak.

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

> DURANGALDEA

83ko uholdeek urez bete zuten Durangaldea

Orain 30 urte uholdeen eraginez estuasun uneak bizi izan zituzten Iurretan, Matienan eta Berrizen

> JONE GUENETXEA

1983ko abuztuaren 26an Durangaldeko hainbat gune urez bete ziren. Iurretan, Traña-Matienan (Abadiño) eta Berrizen eraikin askotako beheko solairuak eta kaleak estali zituen urak. Denda eta taberna askotan kalte material handiak eragin arren, ez zen zauriturik izan. Hala ere, egun hori estuasun handiagaz bizi zuenik ere izan zen. Jon Irazabal iurretarrak akorduan du egun hura: “Uholde bi izan ziren. Goizean izan zen bata eta ondoren uraren maila jaitsi egin zen. Arratsaldean berriz, Bilbon marea igotzerakoan erreketako ura igotzen hasi zen”. Askondo, Zubiaurre, Bixente Kapanaga kaleak eta errepede nagusia urez gainezka

gelditu ziren Iurretan. “Ebro baserriira joan ginen, eta bertako bizilagunak irten egin behar izan ziren. Ibaiondo tabernan mostadorearen altueraraino igo zen ura”. Gallegoaren degustazioko Alfredo Lopez eta emaztea dendaren barruan gelditu zirela eta zodiak batean atera behar izan zituztela gogoan du iurretarrak.

Matiena “urpean”

Taberna Zarrako Miguel Angel Munitxa uholdearen egunean Pancorbora joan zen goizean goizetik. Eguerdian heldu zenean, ura jaitsita zegoen, baina arratsaldean berriro ere errekek gainezka egin eta Matiena urpean zelan gelditu zen ikusi zuen. “Beheko solairu guztietara sartu zen ura

eta gure tabernan makineria guztia hondatu zuen”, oroitu du Munitxak. “Matienan gertatu diren beste uholdeak ere abuztuaren izan dira. Orain 50 urte baino gehiago, San Salbadore egunez, abuztuaren 6 batean, beste uholde handi bat gertatu zen. Urak gizon bat eramanez Samur enpresa zegoen inguruan, eta sokekin atera behar izan zuten”.

Berrizen, errepede nagusira heldu zen ura. Erreka inguruan,

Uholdeak eragindakoari aurre egiteko, elkartasuna zabaldu zen Durangaldeko herritarren artean

Juliantxu tabernaren jabeek kalteak izan zituzten sotoan.

Uholdeak eragindakoari aurre egiteko, elkartasuna zabaldu zen Durangaldeko herritarren artean. Hainbat lagunek garbiketan lagundu zieten inguruko dendari zein tabernariei.



N-634 errepedea urez gainezka, lurreta parean. Jose Antonio Izurieta “Txikuri”.



Traña-Matienako erdigunea, urez estalita. Miguel Angel Munitxa.

100.000 euro gehiago gizarte laguntzarako

> M. O.

Durangaldeko Amankomunazgoak 100.000 euroko partida bat sortu du gizarte larrialdietako eskaerei erantzuna emateko. Aurtengo sei hilabeteetan eskaerak handitu egin direla esan du Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek, eta behar horiei erantzun gura dietela horrela.

Aurrekontuaren soberakinetik hartu dute diru kantitate hori. Aldundiak onetsitako lege batek aurrekontuak onartu eta gero ere inbertsioak egiteko eskubidea ematen duela azaldu dute. Guztira, 3,4 milioi euroko soberakina dauka Amankomunazgoak.

Bestalde, beste arlo batzuei begirako inbertsioak ere egingo dituzte: Belodromoa eraberritzeko 220.000 euro, atletismo pistako irisgarritasuna hobetzeko 36.000 euro eta trinketeen konponketa batzuek egiteko 10.000 euro.

Hurrengo urteetan saharauiak etxean hartzeko deia egin dute

> MARKEL ONAINDIA

Joan dira etxera uda Durangaldean pasatu duten saharauiak. Joan zen barikuan prentsaurrekoa eskaini zuen Herria elkarteak, ekimena baloratzeko. Orokorrean ondo joan da guztia. Baina, hurrengo edizioei begira daude kezkatuta. Angel Longartek dio 2010etik hona beherantz datorrela saharauiak etxean hartzen dituen familien kopurua, eta horregatik, alarma deia egin du.

Bestalde, urritasunak daukaten beste zortzi ume ere etorri dira Izurtzara, Rio de Oro-Durangoko ekimenaren bidez. Mikel del Arco antolatzaileak esan du espero baino hobeto irten dela, eta datozen urteetan errepikatze gogoa dutela. Umeek ere hobekuntzak izan dituzte hemengo klima, osasun arreta eta babesagatik. 50 bolondres baino gehiago ibili dira lanean, 24 orduko zaintza bermatzeko.

**> BERRIZ**

Ikasturte berrirako bost ikastaro Emakume Eskolan

> AMAIA UGALDE

Maitasunaren mitoak, eguneroko gatazkak, literatura... Hainbat gai landuko dituzte Berrizko Jabekuntza Eskolan irailetik aurrera. Udaleko Gizarte Ongizate sailak bost ikastaro antolatu ditu, formazioa eskaintzeaz gainera emakumeen eztabaidagune den Emakume Eskolan.

Miriam Herbon soziologo eta indarkeria sexistan adituak ikastaro bi emango ditu

Lehenengo ikastaroa irailaren 19an hasiko da, eta jendarean berba egiteko teknikak irakatsiko ditu Miriam Ocio Saenz de Buruagak. Hilabete honetan bertan, euskal literaturaren ira-

kurketa feminista egingo dute Iratxe Retolaza idazle donostiarraz. Urrian hasita, munduko emakumeen literatura lantzeko ikastaroa ere eskainiko dute.

Maitasuna eta gatazkak


Urritik aurrera Miriam Herbon soziologo eta indarkeria sexistan adituak ikastaro bi emango ditu Emakume Eskolan: *Nola konpondu gatazkak nire eguneroko bizimoduan* eta *Ai nire maitea, maite nazazu gutxiago baina hobeto*. Azken hori maitasun erromantikoari buruzkoa izango da.

Izen-ematea ikastaro bakoitza hasi baino hamar egun lehenago amaituko da; Berrizen erroldatutakoentzako doakoa izango da, eta erroldatu bakoek 12 euro ordaindu beharko dute. Gizarte Ongizate sailean eman behar da izena. Informazioa eskatzeko: gizarte2@berriz.org.

A CENTRAL
FORESTAL

**Baserritarren eta Euskal
Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 94 620 51 87 - Faxe: 94 620 51 94



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



AROTZERIA



ITURGINTZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialen, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

EGUIA S.L.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 601 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sil@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETA



ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LOREZAINZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 833 Patxi 696 463 085



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

> ELORRIO

Kanpoko igerilekuen proiektua errealitate bihurtuko da

**> MARKEL ONAINDIA**

Azkenean egia bihurtuko da Elizaldeko kanpoko igerilekuen proiektua. Gobernu taldeak aurtengo aurrekontuetatik kanpo utzi zuen, lehenago herritarren iritzia ezagutu eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Bada, pauso biak emanda, uztaileko udalbatzarrean onartu zuten proiektua. Gobernu taldeak hainbat datu aurkeztu ditu obra eta osteko mantenimendua ordaindu ahal dituela egiaztatzeko. Obrak milioi batetik gorako

gastua dauka; udalak 3,8 milioi dauzka banketxeetan, eta 2,7 milioiko soberakin garbia ere bai.

EAJk esan du aspaldiko eskaera dela igerilekuena, eta oraingo inkestetatik ere hori ondorioztatu dutela. 208 ekarpen jaso dituzte eta %80 aldekoak izan dira; telefono bidezko inkestetan, lautik bat dago alde, eta hamarretik bakarra kontra. %55 ez daude ez alde ez kontra.

Bilduk hasieratik esan izan du ez dagoela igerilekuak egitearen kontra, baina ez du bat egin

EAJren ideiaz. Kritika gogorra egin du koalizioak: udalbatzarra baino aste bi lehenago Ana Otadui alkateak esan zuela proiektua ez zegoela konfirmatuta. “Gai-ordenaren bidez enteratu ginen onartzeraz zihozazela”, esan du Idoia Buruagak (Bildu). Horrez gainera, iritzi bilketan herritarren %3k bakarrik parte hartu duela txarretsi du Bilduk: “Adarjotzea izan da”. Buruagaren arabera, soziologoekin egon dira eta esan diete ez dagoela oinarri sendorik igerilekuen

beharra ondorioztatzeko. E-mailak manipulatzeko eta euren intereserako erabiltzea leporatu dio EAJri. “Datorren udarako prest eduki gura dituzte igerilekuak, hauteskunde aurretik”. Bilduren ustez, igerilekuen beharra justifikatzeko “antzerkia” izan da guztia.

Bestalde, inbertsiorako dirua batzeko etxe bi eta lursail bat erabili izana ez du ondo ikusi Bilduk. Krisialdian beste hainbat proiektu egin ahal izango zirela diote.

Topagune izan guran

Instalazio berrietan hiru igerileku egongo dira: txiki bat umeentzat, beste bat jokoekin, eta hirugarrena bainua nahieran hartzekoa. Taberna bat ipiniko dute, terraza bigaz. 25.000 metro karratuko eremua izango da, berdegune eta guzti.

Gobernu taldeak hainbat abantaila ikusten dizkio proiektuari. Ekonomikoki, zazpi lanpostu sortuko direla esan dute, eta komertzioan eragina igarriko dela. Maila sozialean, igerilekuak elorriarren topagune izatea gura dute.

50. urtemuga ospatuko dute bihar Lagun-Toki elkarteak

> M. O.

Elorrioren sortu zen lehenengo elkarte gastronomikoa 50 urte beteko ditu bihar. Lagun-Toki, horrela ipini zioten izena hasieran batu ziren 28 bazkideek. 1963ko martxoan hasi ziren elkarte sortzeko asmoekin, eta herriko jaietarako zabaldu behar zutela pentsatu zuten. Gerora, bazkide gehiago gehitu ziren, 100era heldu arte. 1987an sartu ziren asko, emakumeak ere bai tartean. Gaur egun elkarte bazkide den Pedro Azkarragaurrek azaldu du omenaldia egingo ditela bihar hasierako bultzatzaile haiei, efemeridea aprobetxatuta. Sasoi hartako hamar bat bazkide egongo ei dira omenaldian. 11:00etatik 14:00etara bitartean argazki erakusketa ipiniko dute herritar guztientzat ikusgai.

Kultur mugimenduan ere parte hartu izan du Lagun-Toki. Esaterako, eurek hasi ziren Santa Ageda abastera irteten. Ospitalean laguntzeko batzen zuten dirua. Gaur egun, Iturritzorren parte hartzen dute, Elorrioko elkarte gastronomikoen bilgunean.






INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.

PARTE HARTU EZAZU ZOZKETAN

PROMOZIO BERRIA TRAÑA - ERROTAN (Matiena)

2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak

174.600 eurotik aurrera

Izen-ematea
2013ko
irailaren 6ra arte

Tel: 630 993 167 - 944 571 700

Informazio bulegoa obran bertan

www.sanfausto.es

Izena emateko epea, (BBO 149 zenbakian ikusgai) 2013ko irailaren 6ra arte.
Informazioa eta dokumentuak aurkeztea Abadiñoko udaletxean. Behin betiko zozketa irailean.

> DURANGALDEA ASTEON**Errokatiba eguna ospatuko dute Urkiolan, bihar**

Urkiolara egunpasa joateko ohiturari ez diote hutsik egingo abadiñar askok, bihar. Ohitura jarraituz, goizean goiz abiatuko dira Andra Mariako ermitatik Santutegira oinez joateko hautua egiten dutenak. Meza, bazkaria, eta dantzaldia izango dituzte, besteak beste, Urkiolan.

Herriko bi proiektu humanitario diruz lagunduko du udalak

Elorriion lanean diharduten Gobernuz Kanpoko bi elkarteei 27.000 euroko dirulaguntza emango diela iragarri du Elorrioko Udalak: Kainabera elkarteak 22.147 euro jasoko ditu, besteak beste Nikaragua edo Kolonbian dauzkan proiektuetarako, eta 4.852 euro Lajwad Elorrioko Sahararen Lagunen elkarteak.

**Eman dute Salerosketak Be Euskaraz kanpainan zotz egindako bosgarren tableta**

Durangoko Kaiala arropa dendan banaturiko zenbakia suertatu da Salerosketak Be Euskaraz kanpainaren irabazle. Ekimenaren bosgarren zozketa izan da, eta Ziortza Sagarnak eraman du zotz egindako tableta etxera. Erosketak euskaraz egiten dituztenak saritzeko abiatu zuten iazko urte amaieran Salerosketak Be Euskaraz. Irailaren 1ean egingo dute ekimenaren barruko hurrengo zozketa.

> IZURTZA**San Iurgi Ehiza Elkarteak sortu dute dozena bat izurtzarren ekimenez**

Bitaña auzoko ehiza postu batzuk kudeatuko dituzte lehenengo urtean

> JOSEBA DERTEANO

Izurtzako dozena bat ehiza zalek San Iurgi Ehiza Elkarteak sortu dute. Ehizagaz batera, arrantza arloa ere barnean hartu dute eta arrantza zaleei irekitako elkar-tea izango da.

Sasoi batean, Izurtzako ehiztariak Mañariko Mugarra elkartean ibili ziren. Ez zeuden euren kudeaketagaz gustura eta apurka-apurka Izurtzako ehiztariak elkar-tea utzi zuten. Gero- ra, Izurtzako Bitaña auzo inguruan ehizarako zazpi postu dau-

dela-eta, elkarte batean batzea eta Aldundiari postu horien kudeaketa eskatzea erabaki zuten. 2011n egin zuten elkarteak sortzeko lehen batzarra, eta eskakizun denak beteta, dagoeneko eratu-ta dago. Aldundiari Izurtzako postuen kudeaketa eskatu diote; erantzun dietenez, aurturazazpi-tik lau postu eurentzako izango dira, eta gainerako hirurak Mugarrentzat. Postu horien zozketa laster egiteko asmoa dute. Horrez gainera, oilgorrak ehi-zatzeko baimena ere eskatu du-

te, baina Aldundiak ez die oraindik erantzun.

Jesus Mari Bikandi ehiza elkarte berriko kidearen esanetan, herriko naturguneak zaintzen lan egiteko asmoa ere badute aurrerantzean. Bide horretatik, uztailean auzolana deitu eta Mugarra mendiko haitzetan jaio eta bere urak Mañaria errekarara isurtzen dituen Etxetorre erre-kastoa zein herriko abereen askak garbitu zituzten. Aurrerantzean ere antzeko ekimenak egiteko asmoa dute.



Uztailean Etxetorre errekastoa eta inguruko abereen askak garbitu zituzten.

> ZALDIBAR**Euskara ikasleentzako dirulaguntza eskaintza**

Urriaren 15era arte, udalean aurkeztu daitezke eskabideak dirulaguntza jaso ahal izateko

> AITZIBER BASAURI

2012/2013 ikasturtean euskara ikasten jardun duten ikasleentzako dirulaguntzak bideratu-ko ditu udalak. Urriaren 15ean bukatuko da eskabideak eta agiriak aurkezteko epea. Dirulaguntza jaso ahal izateko beharrezkoa da herrian erroldatu-egotea, eta gutxienez %80ko asistentzia ziurtatzea.

Matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren txostena aurkeztu beharko dira eskaria egiteko: buruturiko ikastaroa-

ren ordu kopurua, asistentzia eta urrats bakoitzeko fitxa jaso behar ditu txosten horrek.

Ikastaro ez-trinkoen kasuan, matrikularen kostuaren %75 jasoko dute %80-90 arteko asistentzia erakusten dutenek. Bestalde, eskatzailea ikastaroaren saioen %90era joan bada, matrikularen %90 jasoko du, eta saio guztietara joan denak dirulaguntza osoa jasoko du.

Ikastaro trinkoei dagokienez, kostuaren erdia ordainduko du Zaldibarko Udalak.

Esleitu dute eraikin publikoen garbiketa**> ITSASO ESTEBAN**

Eraikin publikoen garbiketa lanak Ansareo enpresari eman dizkio Zaldibarko Udalak. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, enpresa horrek aurkezturiko proposamenak jaso du “puntuazio tekniko altuena”. Hiru urterako egin dute eraikin publikoen garbiketa lanen esleipen hori. Arantza Baigorri alkateak adierazi duenez, gobernu taldearen asmoa beti izan da “udalak zuzenean kontratatzea garbiketako langileak, baina Espainiako gobernuak onartutako udalen aurrekontu egonkortasun legeak ezinezko” egiten du.

> MAÑARIA**Partaidetza handituta ospatu dituzte jaiak**

Paella txapelketan 270 lagun batu ziren bazkaltzeko

> MARKEL ONAINDIA

Aurtengo Andra Mari jaietan herritarren partaidetza handitu da aurreko urteetako edizioekin alderatuta. Hori esan dute Jai Batzordeko kideek, eta sentazio ona daukate, oraindino balorazio osoa egin ez duten arren. Ekintzek herritarrengan harrera ona eduki dutela adierazi dute, eta parte-hartze handia egon dela. Esate baterako, herri afarian 225 lagun batu ziren: “Oraindino jende gehiago geratu zen apuntatu ezinik”, azaldu

dute. Beste ekitaldi arrakastatsu bat paella txapelketarena izan zen; 270 lagun elkartu ziren bazkaltzeko. Herriko ekintzetan normalean parte hartzen ez duen jende ugari aurtur hurre-ratu egin dela-eta, pozik egin dute berba.

Bestalde, umeen jolasak herritar asko erakarri zuten, Andra Mari egunez. Hilaren 16ko rock kontzertuek ere gauza bera lortu zuten: “Gazte piloia etorri zen”, esan dute Jai Batzordeko kideek.

momtaberna

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 94 681 10 06

Ofizinarako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

94 620 22 41
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 94 620 18 93
Faxa: 94 681 64 03

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

► Berbaz

Isabel Kapanaga | Bederatzi urtez izan da Jesuitak ikastetxeko zuzendaria | Durangarra da, ikasketez kimikaria

“Ikastetxeko proiektua osotasunean ikusteak lanerako ilusioa ematen du”

Kimika ikasketak egin eta lantoki batean hasi zen lehenengo lanean. Handik gutxira, irakasle izateko aukera sortu zitzaion Jesuitetan. Isabel Kapanagak ordurako ez zuen bere burua lantegi batean ikusten.

> AMAIA UGALDE

Azken bederatzi urtetan zuzendari izan eta gero ikasturtea zuzendari bulegotik kanpo hasiko du Isabel Kapanaga durangarrak. Pozik dago eginda-koagaz eta hastear den etapa berriagaz.

Zuzendari izan aurretik ere ondo ezagutzen zenuen ikastetxea. Zelan bizi izan dituzu zuzendaritzako urte hauek?

Lehenago irakaslea eta ikasketa burua ere izan naiz, baina beti da aldaketa. Zuzendaria izanda, ikasleekin eta familiekin modu askotara eduki dut hartu-ema-na, eta asko ikasi dut, baita gozatu ere.

Zer gustatu zaizu gehien behar horretatik?

Orena ikastetxeko proiektua osotasunean ikustea izan da. Hemen, urtebetegaz hasten dira eskolan, eta 18 urtegar amaitzen dute. Ibilbide osoa ikusten duzu eta aukera hori oso aberasgarria da. Erabakiek eta gauza txikiek heziketa prozesu osoan zelako eragina duten ikusten duzu: tutoreak zelako garrantzia daukan, eskolaz kanpoko jarduerak, balioetan sakontzeak... Irakasle lanean ere hori oso polita izaten da; eboluzioa ikustea. Ikasle ohi batzuk guraso edo irakasle dira orain! Zuzendaritzan, egiten dugunaren garrantziaz jabetu naiz. Gauza txikiak aldatzeak eragina izan dezake pertsonengan. Ipuin bat dago hori azaltzen duena: hargin batzuk lanean dabilta, eta gizon bat joan zaie galdezka,

“

Batzuetan lan txikia badirudi ere, gure lanean pertsonak garatzeko harri koskorra ipintzen dugu”

ea zertan dabilta. “Ez duzu ikusten? Harria lantzen” erantzun du batek, eta hurrengoak ere bai. Hirugarrenari galdetu, eta erantzun dio: “Ez duzu ikusten? Katedral bat eraikitzen”. Lan txikia badirudi ere, gurean ere pertsonak garatzeko, katedral horiek egiteko gure harri koskorra ipintzen dugu. Irakasle zarenean ere konturatzen zara, baina agian ez hainbeste dimentsio horretan.

Askok aldatu da ikastetxea bederatzi urte hauetan?

Eraikinean bertan, aurrerapen itzelak egin ditugu, eta agian hori da kanpotik ikusten dena. Proiektu osoaren ideia landu dugu, elkar eragiten dugula kontuan hartzea. Aniztasuna eta hizkuntzen garrantzia lantzen hasi gara. Eredu bakarra izatera pasatu gara. Guk ez dugu nahi ez B ez D, eredu propioa gura dugu, Durangok behar duena: euskalduna izatea, eta ingelesez

gaitasuna edukitzea. Balioetan sakondu dugu, boluntario lanak bultzatzen, nagusiekin, Gorabiderekin... Gure entrenatzaileak ere denak dira boluntarioak, eta hori ez da erraza; gazteek euren denbora ematea trukean ezer jaso barik. Jaso dutena gizarteari emateko modu bat da, eskolari bueltatzeko. Gure organigrama ere aldatu genuen duela urte bi. Aldaketa handia izan da. Enpresa eta ikastetxeetan nahiko organigrama bertikala izaten da. Horri buelta eman eta ikaslea ipini dugu erdigunean, eta gero bere inguruan dauden taldeak: irakasleak, eskolaz kanpoko jendea, administrazioa... Zuzendaritza ere zerbitzuan dago, ez agintzeko, lanak errazteko baino.

Irakaskuntza arloa oso ardurata dago orain, Werten erreforma dela-eta.

Gu ere bai. Ez gaude ados planteamentu filosofikoarekin. Hezkuntza lana topatzeko tresna moduan hartzen da, eta guk ez dugu horrela ikusten; hezkuntza pertsonak garatzeko izan behar da, eta horren ondorioz etorriko dira lanak eta bestelakoak. Aplikazioan ere gauza asko daude. Gure herria Euskal Herria izanda, gure autonomia propioak, gure hizkuntzak eta kulturak berebiziko garrantzia dauka. Hezkuntzaren bidez gure zuztarretan hezi gura ditugu pertsonak, beste kulturetara zabalik. Espero dugu legearen barruan tresnak izatea legea bera baztertzeko.



Ikasturte berrirako gogotsu zaude?

Bai. Pozik amaitu dut etapa hau. Ohore bat izan da instituzio honen aurpegia izatea, Durango mailan, nire herrian. Talde lana egin dugu zuzendaritzan, eta badakit taldeak eta Eva Rodriguez zuzendari berriak ibilbide bera jarraituko duela. Konfiantza osoa daukat. Orain irakasle izateaz gainera, tutorea ere izango naiz, eta pozik nago, ikasleen eta familien jarraipena zuzenagoa delako, ez bakarrik arlo akademikoan.

Zuzendari berriari zer aholku emango zenioke?

Batez ere, ilusioa ipintzea eta gozatzea. Arazoak eta kezkak handiak dira, baina ilusioa baduzu eta proiektuan sinisten baduzu, beste era batean eroaten dituzu. Kasu batzuetan, zuzendariak erreta amaitzen dute ardurekin. Hori ez gertatzeko ilusioa behar da. Ilusioa, eta hobetzeko gogo. Oreka bilatu behar da inkonformismoaren eta asebetetzearen artean. Pozik egon behar gara, ondo goazela ikusita, baina hobetu ahal dugula jakinda.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Grupo CATALANA OCCIDENTE

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 - Faxes: 94 681 65 77
e-maila: jrueda@segurosbilbao.com

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drenatze linfatikoa (masektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ

tel. 94 622 55 93



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antzietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245 728

RPS: 62/11



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

tel. 94 620 11 00

RPS: 108/13

GOIATZ MURUA
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA

*Kiropodia, Onikopatía, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak*

Monago Torre, 4 - behea
48200 DURANGO

tel. 94 620 36 30



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*

Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

tel. 94 681 03 87

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetta Torre, 2 - C behea
48200 DURANGO

tel. 94 681 99 51

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

tel. 94 681 22 00

RPS: 112/13



OPTIKA

keñu

ZENTRU OPTIKOA

*Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tel. 94 622 50 99

Iritzia

> GUTUNAK


 gutuna@anboto.org
 eguazteneko 17:00ak arteko epea

Genero indarkeria

Laino beltzak atzean geratzen dira; elkarretaratzeak, salaketak, protokoloak, bilkurak eta manifestazioak ere antzera. Gizonezkoen ekintza bortitzaren ondorioz beste emakume errugabe bat egurtu edo hil arte. Eta aurrerantzean zer? Zertarako ekintza guztiak? Ezer lortzen ote da? Hurrengoan ere ez dira faltako gertatutakoaren inguruko erreakzioak. Baina horrela desagerraraziko ote dugu genero indarkeria, emakumeen kontrako bortizkeria?

Ez da erraza, baina hausnarketa bat egin nahi dut.

Gizakiak bi multzotan banatuko nituzke: burutik ondo daudenak, eta ondo ez daudenak.

Beti imitatzen ditugu beste batzuk, haien balentriak, edo haien modukoak garela amesten dugu; kirolean, adibidez, urlia eta sandia idolo moduan hartzen ditugu.

Susmoa daukat ea burutik ondo ez daudenek ez ote dituzten hiltzailak imitatzen; ezkutuan dauden ero askori burmuineko konexioren batek huts egin, eta albiste jakiterakoan, ez ote duten hiltzaile pape-ra hartzen.

Ez zait batere egokia iruditzen nola erabiltzen dituzten hedabideek gertakizun horiek. Ez noa esatera isilpean gorde behar direnik, baina errealitatea zein izan den zehatz jakin barik, egunkarietako lehen orriak morbo hutsa dira. "Hiltzaileen lehen biktimak izan ote da?", "... beste emakumerik hil ote duen susmoa dago...". Batzuetan aste osoa igaro eta gero ere, egunkariko azalean jarraitzen du hiltzailearen "ibilbide profesionalak". Nire ustez, lotsagarria.

Bestetik, epaileen eta poliziaren lana ere zalantzan jarriko nuke, jarraipen zehatzagoa egin beharko litzaioke susmagarriari, urrutze agindua apurtzen duenari, eta kartzelek ezer konpontzeko balio ez badute, beste konponbide bat aurkitu beharko da jende hori berriro gizarteratzeko. Eta ezer lortzen ez bada, isolatuta eduki, berriro ez dezan norbaiti erasotzeko aukerarik izan.

Nik, behintzat, ez nuke bizi nahi hogei urte kartzelan edo zoroetxe batean egin duen hiltzaile baten inguruan. Ez, behintzat, guztiz aldatu dela ziurtatu gabe.

Jabier Lekerika

Zaldibar

> KLIK BATEAN



Non daude haize-errotaren helizeak?

Anboto-ren irakurle batek Abadiñoko Traña-Matiena auzoan, Eroskira bidean dagoen parkearen alboko txabolaren argazkia bidali du. Azaltzen duenez, hilabeteak dira Eroskira erosketak egitera doanean haize-errotaren helize barik ikusten duela. "Zelan hornitzen dute energiaz ondoko parkea orduan?" galdetzen du.

Abadiño

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar




FRACKING

Gasa ateratzeko teknika berezia da frackinga, oso kutsakorra, Euskal Herrian gaurdaino ondoegi ezagutu ez duguna. Lur azpian ura presiopean sartzen da, osagai kimikoekin nahastuta ezlandak sortzeko, eta harriak apurtu ostean, gasa azalera ateratzen da. Teknikaz gehiago ezagutzeko bi film gomendatzen ditut: *Promiseland* eta *Gasland*.

Gaurkoa ez da, ordea, pedagogia egiteko eguna. Herritarrek ohartarazi gura nituzke. Izan ere, EAJri, PSeri eta progresismo ustela saltzen duten horiei esker, Bizkaian eta Durangaldean ere frackingaren mehatxupean bizi gara. Eusko Jaurlaritzak eskatuta dauka teknika horrekin gasa ustiatzeko gure eskualdea ia osorik ukitzen duen baimena. Frackingaren bultzatzaileek, ordea, ikasi dute hitz hori isilpean mantentzen. Estatuko leku askotan herritarrek gogor erantzun baitute frackingaren aurka. Adi, beraz, "harriaren estimulazioa", "ustiaketa burutzeko ezohiko baliabideak" edo horrelako amarruak entzuten dituzueneari.

Baina eztabaida ez da soilik ekologikoa; garapen ereduarenean ere bada. Laster, ereduaren inguruko eztabaida hori ere gure eskualdera helduko da. Orduan ikusiko dugu zer indar politikok jarraitzen duten bultzatzen eredu kapitalista, erregai fosilekin elikatzen dena eta hazkunde mugagabearen oinarritzen dena; eta nortzuk ari garen ereduaren errotik aldatzearen alde borrokan, eredu energetiko berriztagarriaren alde lanean, tokian-tokian planifikatua eta deszentralizatua. Honetan ere, *status-quo*aren alde egingo dute betikoek, tamalez.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



anboto
 komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta
 (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa:
 94 623 25 23
 Publizitatea:
 94 621 79 02
 publi@anboto.org

2013ko abuztuaren 30a
 11. urtea - 511. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano.
Administrazio burua:
 Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia
 eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea: Goitz Etxeita,
 Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
 Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Unai Goikolea | Durango, 1981. Bilbon bizi da. | DJa

“DJ batek zerbait erakutsi behar du, ez eskatzen diotena eman bakarrik”

Hamar urte daramatza Unai Goikoleak DJ lanetan. Urteurrena ospatzeko hainbat emanaldi berezi eskaini ditu Bartzelonan eta Bilbon, eta urte amaierara arte beste hitzordu batzuk ere antolatuko ditu

> ITSASO ESTEBAN

DJ lanetan hamarkada bat daramazula ospatzeko bira antolatatu duzu.

Bai, zenbaki borobila izanik, ospatu gura izan dut. Urte osoan ospatzea da ideia, ez jaiegun batean bakarrik. Orain arte lan egin dudan jendearekin elkartu, eta ate berriak zabaltzea ere bada asmoa. Orain hamar urte hasi nintzen musika jartzen, eta txikitatik musika izugarri maite dudan arren, DJa izatea ez da sekula nire helburua izan.

Zelan gerturatu zinen 20 urte-ekin DJ mundura?

Arte Ederrak ikastera Bilbora joan nintzenean topo egin nuen jazza edo funka lako bestelako doinuekin. Bilboko taberna batean eskaini zidaten lehenengoz musika ipintzeko aukera.

Zein izan da zure ibilbidea?

Esan bezala, Bilbon hasi nintzen, eta Fever dantzalekuan DJ egoiliarra izan naiz, sei urtez. Madri- len, Bartzelonan eta Valentzian ere asko aritu naiz.

Zer berezitasun dauka zure emanaldiak?

Batetik, pop musika (jendeak ezagutzen dituen kantak) eskaini izan dut, eta bestetik, dantzan gehiago oinarritzen den klubeko musika eskaintzen dut (elektro- nika). Bi mundu horien erdian egon izan naiz beti, eta askori interesgarria iruditu zaie nik eskaintzen dudan aniztasun hori.

Zaila da oreka mantentzea?

Gehiengoarekin bezala gutxiengoekin ere harremanetan egotea

da kontua: bi munduekin jolas- tea. Batzuentzako traidorea zara, baina beste batzuentzako oso interesgarria. Alaskak edo Fer- min Muguruzak oreka hori mantentzen oso ondo jakin dutela iruditzen zait: euren kulturarekin kanpora ateratzea lortu dute, baina irekiak izan arren, sekula ez dute euren ahaztu.

Zure musika hautaketa ez da ausazkoa. Erabaki oso kontzienteak daude atzetik.

Bai, eta saiatzeko jaiari kutsu

soziala ere ematen. Bestela, gau osoa ingelesezko musika ipintzen ematen duzu, eta ez nago prest. Irekia izatea ez da zurea ahaztu beharra. DJak zerbait erakutsi beharra duela uste dut, ez eskatzen diotena eman bakarrik. Musika nondik datorren jakin barik kontsumitzen du askok. Gaztelerazko, euskarazko eta ingelesezko kantak ipintzea asko zaintzen dut nik.

“

Gehiengoarekin legez gutxiengoekin ere harremanetan egotea da kontua”

Zer bidetatik lortzen duzu musika berria?

Azken urteetan, Internet baliatzen dut batez ere musika erosteko. Bestalde, noski, urtero joaten naiz Durangoko Azokan nobedadeak eskuratzen.

Gaueko giroari oso lotuta dagoen lana da zurea.

Bai, horrela da. Nahiz eta, egunez ere ipini izan dudana musika: dendetan, museoetan, jaialdietan... Askok eskertzen dira egunezko aukera horiek, baina ez da batere erraza: egoera ekonomikoak eraginda, gero eta jende gutxiagok du hori egiteko aukera.

Bilbo DJ baten lanerako leku proposa da?

Bai. Durangon bizi nintzenean kanpora joateko beharra sentitzen nuen. Kanpora joatea, nire ustez, ez da beste herrialde batera joatea, hirira joatea baizik.

Musikaz beteriko maleta hartuta, jai giroa sortzen



CD euskarria baliatzen du Unai Goikoleak musika jartzeko, eta CDz beteriko maletatxoak eskuan darama joaten da dantzalekuz dantzaleku: “Orain arte, biniloa ikusi izan dugu euskarri artisau gisa, baina azkenaldian CDa ere kutsu hori hartzen hasi da”. Emanaldietan darabiltzan CD irakurgailu biak eta nahasteko mahaia ikusten dituzten gazteak harritu egiten direla kontatu digu DJ durangarrak.

Maletatxo bat da Unai Goikolea DJaren lan tresna garrantzitsuenetako bat. Musika asko, oso anitza gordetzen du maleta horrek. Azaldu duenez, hamarkadaren eta kulturaren arabera dauka antolatuta: “Kultura latinoak batetik, eta anglosaxoia, bestetik”.

“Askok barre egiten dute zelan antolatuta daukadan ikusten dutenean: oso ‘kuadrikulatua’ naiz”, dio.

DJjak psikologotik ere izan behar duela uste du Goikoleak. “Gustuko dut jaia jendearekin egitea, ez zait batere gustatzen jendea kontra izatea. Baina oreka aurkitu behar duzu: irekia izan behar duzu, baina ezetz esaten ere jakin behar da. Osterantzean, zuk ez duzu ezer erabakitzen”. Erdibidea topatzea da Goikolearen teknika: jendeak ezagutzen duena eta ezagutzen ez duena uztartzea.

Momentuko musikek eta klasikoek osatzen dute Unai Goikolearen kanta zerrenda. “Berria, berez, ez baita zaharra baino hobea, baina alde- rantziz ere ez”.

> **ITSASO ESTEBAN**

Uztail amaieratik Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai dago Javier Sotoren (1975, Suitza) margolan bilduma. Abuztuko geldialdiaren ostean, asteon zabaldu dute Durangoko Museoa ikasturte berriari ekiteko. *Munduko arte guztia artez* izeneko erakusketa da irailaren 8ra arte bertan izango dena. Erakusketa 16 obrak osatzen dute.

‘Munduko arte guztia artez’ erakusketa da irailaren 8ra arte Durangoko Museoan zabalik izango dena


Hiru margolan serie, desberdintutako hiru koadro bilduma dira Durangon ikusgai dagoen erakusketan batutakoak: *Kisses*, *Animalia mitikoa* eta *Otsoak* izenburuekin aurkezten ditu egileak hiru serieok.

Javier Soto artistak erakusketaren aurkezpen orrian esaten duenez, “elkarren artean mintzatzen dira” erakusketa honetako lanak. Ikusleak “sortzen den zurrumurrua entzun” bai, baina ulertu ez duela ulertuko aurreratzeko Sotok. Eta gomendio zuzena egiten die bisitariei: “Ahol-

> **PINTURA**

Javier Sotoren margolanek zabaldu dute Museoko ikasturtea

Irailaren 8ra arte izango da Sotoren erakusketa Durangoko Museoan ikusgai



‘Kisses’, ‘Animalia mitikoa’ eta ‘Otsoak’ izenburuekin aurkezten ditu egileak erakusketako hiru serieak

katzen dizuet nire marrazkien aurrean etsitzeko eta frustrazio hori ospatzeko”. Goraipatu egiten ditu Sotok bere piezen “inkomunikazioa” eta ikuslearengan sortzen duen “seriotasun absurdoaren sentsazioa”. Beste eskari bat ere egiten die Sotok erakusketaren bisitariei aurkezpen orrian: “Nire lanari logikatik ez begiratzeko eskatzen dizuet”.

Javier Soto: “Aholkatzen dizuet nire marrazkien aurrean etsitzeko eta frustrazio hori ospatzeko”

> **ZINEMA**

Proiektore berria ipini dute Elorrioko Arriola antzokian

Irailan ikasturte berria abiatzen dutenerako, filmak digitalan emateko teknologia prest edukiko dute Elorrioko Arriola antzokian. Proiektagailu berria ipini dute, eta zinemako ekoizpenak irudi eta soinu kalitate onenarekin ikusteko aukera eman du teknologia berri horrek.

Guztira 56.870 euroko inbertsioa egin du udalak teknologia hori eskuratzeko, Elorrioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek hala erabakita.

Antzokiak eta Elorrioko Udalak adosturiko hitzarmenak jasotzen duenaren arabera, ahalik eta programazio zabal eta anitzena eskaintzea dute helburu Arriola antzokian; urte osoan ikusleei kalitateko programazioa eta berrikuntzak eskain-

tzea. Zinemari dagokionez, aste-bururo helduentzako film baten hiru emanaldi, eta hilean behin umeentzako pelikula bat ere eskaintzen dute Elorrioko kultur-gune horretan.

Opor bueltarako umorea

Antzerki emanaldi bati leku eginez abiatuko du Elorrioko Arriola antzokiak ikasturtea. Irailaren 20an, *Lingua Nabajorum* obra izango da ikusgai. Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak antzezten dute Tartean Teatroaren antzezlan hori, eta 22:00etan hasita eskainiko dute Elorrion. Dagoeneko, urrirako eta azarorako, Euskal Herriko zein estatuko konpainiek sorturiko hiruna antzerki emanaldi lotu dituzte antzokian.



Antzerkiagaz abiatuko dute ikasturtea Arriolan.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA

Kazetaria

**Bultza leihotik**

Oi, lur, oi lur! Saminez beteriko oihua, piztia kaiolaratua. Oi, ene lur nirea, gurea... inorena! Hobe genuke gu bagina zurea. Oi, goiz eme bazina eta ez udako ilunabar ar, gorri su kolore, askatasun egarritz itoriko harkaitz puskatua. Irribarre gozoz ernea erausiriko pago, haritz, gaztainondoetan.

Abiaduraz jositako arto musker bultziz leherturik erraiak Udalaiz, malkoz beteriko mendi bortxatu Eskubarratz, baserri zaharrak modernitate kolonialisten testigu mutu-itsu-gor. Ziztada bakoi-tzean lizundutako labana ale gorritz abailduta paradisu-tik eroritako sagarrak. Bekatu guztietatik aske.

Oro laino mehe batek estalia Esako urtegia, baina urrez oro mozorrotu nahi arren tirokatu gaitzazu bizitzaren ize-nean; eguzkiak irribarretsu ehunduko du gure hil-jantzia.

Nekazari, Autzagane, gizandi bat iduri ezerezean eze-reza landuz, makineria astun, burdinez eraikitako piztiatarrak, hezur-haragiz osatutako piztia txarrak soroan, zoroan zut: bejondeigula guri!

Zure bazter kamustu, izorrratu, lapurtuak, gurazko aberria, gure aberria, nahiko genukeena, doa zoro, doaz soro, frackinga eta bertan gu.

Oi, ene lur nuklear, lur termiko, lur birrindu, lur antzu, lur torturatua, bagintuzu zurea, gu landu, eta gure zigorrez aseal...

Baina... ezin: beheko behar gorriak zaramatza goiko perfekzio eskuragaitz eternalaren truke... Agur itsaso, ipar-haize, belar eta orbel, olatu zein harea... Agur soro, sagar, mendiak!...

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Mari kalea, 9 DURANGO - Tel.: 94 681 50 17

**irailaren 22an
denboraldi**

BERRIA!

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGORRI UDALA

h!tz
liburudenda

artekalea 14
durango
94 681 07 76
info@hitzliburudenda.com

JAIK!

2013ko Abuztua-Iraila | Elorrio

Ferixa
Nausikak

Elorrioko Udalak Ferixa Nausiko
jai zoriontsuak opa dizkizue!



Elorrioko udala

ELORRIOKO JAIEN EGITARAUA

Abuztuaren 30a, barikua

Egun osoan, Aukeren Azoka elizpean. Elorrioko Merkatarien Elkartek antolatuta.

Goizean, umeentzako tailerrak plazan, txaranga eta bertso-poteoa plazatik hasita (Gazte Eguna). Eguerdian, bazkaria, eta ondoren bertsolariak: Alaiia Martin, Xabier Silveira eta Aitor Bizkarra.

Aratsaldean, pilota txapelketako finalak plazako frontoian, Azken Barikua plazan eta txupinazoa txosnagunean.

19:00 Pilota partiduak plazako frontoian, Berrio-Otxoa Pilotazale Elkartek antolatuta. Euria eginez gero, Hilario Azkarate kiroldegiko frontoian jokatuko dira.

20:00 Frontenis txapelketaren finala plazako frontoian. Elorrioko Gaztetxeak antolatuta.

23:00 Kontzertua Txosnagunean: Riot Propaganda, Los Chicos del Maiz eta Habeas Corpus. Gaztetxean: Musseum eta Summum Art. Mitx, Affinity Lab, Pako (PKP), Gorri, Jokin eta Mess & J. Frazier

Abuztuaren 31, zapatua

11:30-17:00 Jolas parkeak frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. Euria egiten badu, Hilario Azkarate kiroldegian frontoian egongo dira.

17:30 Elorrioko I. Artzain-txakur Lehiaketa.

19:00 Apar festa.

19:15 Ordiziako Buruhandiak eta Erraldoiak plazan.

20:00 Txupinazoa eta pregoia.

23:00 Danborrada.

23:00 Gaztetxean: Zakarbila, Aizu eta Exaixu. Txosnagunean: Revolutionary Brothers eta Las Tea Party DJ's

00:20 Suzko zezena.

00:30 Blues Thorpes taldearen ikuskizuna Urarkan.

02:00 Txosnagunean: Revolutionary Brothers eta Las Tea Party DJ's

Irailaren 1a, domeka

10:00 Abere eta Nekazaritza Azoka Feriagunean.

Goizean, txistularien kalejira.

18:00 Esku pilota partiduak Hilario Azkarate frontoian. Berrio-Otxoa Pilota Eskolak antolatuta.

19:00 Umeen danborrada plazan.

20:00 Orquesta Espectáculo Jamaica, plazan.

22:00 Suzko zezena plazan.

22:15 Orquesta Espectáculo Jamaica, plazan.

Irailaren 2a, astelehena

14:00 Koadrilen arteko bazkaria Aldatzekuan.

16:30 Rockalean Aldatzekuan.

18:00 Koadrilen jaitsiera.

19:00 Koadrilen arteko jokoak plazan. Abiba DJak berotuko du giroa.

22:15 Suzko zezena plazan.

22:30 Abiba DJa plazan.

Irailaren 3a, martitzena

11:30-17:00 Jolas parkeak frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. Euria egiten badu, kiroldegian.

18:30 Umeentzako animazioa plazan: Galaktika.

Irailaren 4a, eguaztena

16:30 Umeentzako tailerrak plazan. Txintxirri ikastolak antolatuta.

17:00 Gymkhana plazan. Elorrioko Txirrindulari Elkartek antolatuta.

18:00 Txokolatada eta ipuin kontalaria plazan. Elorrioko Txirrindulari Elkartek antolatuta.

18:00 Futbol partidua: Elorrio Uria Elkartasuna III. Hiruko Torneo Elizalden. Elorrio CDk antolatuta.

Irailaren 5a, eguna

22:00 XLIX. Idi-proba Txapelketa probalekuan.

Arratsaldean, Txosnagunean Karpapintxopotea.

Irailaren 6a, barikua

12:00 Meza hildako jubilatuen omenez, Sortzez Garbiaren basilikan.

13:00 Kopaua Elorrioko jubilatuentzat Aldatzekuan.

16:00 Jolas parkeak frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. Euria egiten badu, Hilario Azkarate kiroldegiko frontoian egongo dira.

17:30-19:00 Areta-futbol partiduak kiroldegian. Buzkantz Futbol Kirol Elkartea.

19:00 Neptunorekin Dantza Txapelketa Aldatzekuan. Sari banaketa ere egingo dute.

19:30 Umeentzako animazioa plazan: Diskofesta mitologikoa, Galtza Dantza taldearen eskutik.

19:30 Jaietako errugbi partidua errugbi zelaian.

21:00 'París Cabaret' musikala Arriola antzokian.

22:00 XLIX. Idi-proba Txapelketa probalekuan.

22:00 Suzko zezena plazan.

22:30 Gaztetxean: Pixontxis eta D-Pintxos.

23:00 Golden Apple Quartet Urarkan.

02:00 Txosnagunean: DJ Flyu.

Irailaren 7a, zapatua

08:00 Sukalki Eguna Aldatzekuan. Iturri Zoro Elkartek antolatuta. Zatoz mozorroa jantzita!

11:30-17:00 Jolas parkeak frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. Euria egiten badu, kiroldegian.

13:00 Animazioa plaza inguruan: Marching Band.

11:30-17:00 Areta-futbol partiduak kiroldegian.

17:00 Taberna ibiltaria Aldatzekuan.

17:30 Mozorro eta karrozen jaitsiera, Ustekabe fanfarreak antolatuta.

18:00 Txokolatada plazan. La Esperanzak antolatuta.

18:45 Oihan Vega DJa plazan.

19:00 Taberna ibiltaria Urarka inguruan.

22:00 XLIX. Idi-proba Txapelketa probalekuan.

22:30 Korrefok kale animazioa herrigunean: Malpika Uharteko Piratak.

23:00 Txosnagunean: Sugoi eta Vendetta.

23:30 Urarkan: The Country Revival Farmers.

00:00 Gaztetxean, DJ Tron/P

Irailaren 8a, domeka

Goizean, Elkartasun jaialdia plazan. Kainabera GKEak antolatuta.

13:00 Herri kirolak plazan

18:30 Bertso saioa Casajara jauregian: Fredi Paia, Jone Uria, Beñat Ugartetxea eta Jon Maia. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

20:00 Kontzertua plazan: Xarnege folk taldea.

Irailaren 9a, astelehena

22:00 XLIX. Idi-proba Txapelketa probalekuan. Sari banaketa.



Carlos Villaescusa - Aitor Igarza

URBEGI SL

Bainugelako altzari eta komun-ontziak erakusgai

Zaharberritze eta mantentze lanak

Claudio Gallastegi, 2 • Tel.: 94 682 04 99 • Faxe: 94 658 28 94 • 48230 ELORRIO (Bizkaia)



- MASAJEAK
- AURPEGIKO GARBIKETA
- GORPUTZ TRATAMENDUAK
- MANIKURA ETA PEDIKURA
- DEPILAZIOA
- MAKILLAJEA
- LASERRA

Miren

Labakua, 5 48230 ELORRIO Tel: 946 584 600

estetika zentroa



Argiñeta

Hirigintza eta inbiliaria bulegoa

Zure konfiantzazko inbiliaria

jai zoriontsuak izan!

Urarka, 1 - 48230 Elorrio • Tel.: 94 682 00 41 - Fax: 94 623 16 30
argineta@euskalnet.net • www.argineta.net



Ekitaldi parte-hartzaileak bultzatu gura dituzte Ferixa Nausikoetan

Abuztuaren 30ean hasi eta irailaren 8ra bitartean ospatuko dituzte Ferixa Nausikoetako jaiak

> JONE GUENETXEA

Gaur abiatuko dituzte 2013ko Ferixa Nausikoak zortzi eguneko jai giroari atek irekita. Egitaraua zabaltzeko, Elorrioko Merkatarien Elkartek Aukeren Azoka egingo du egun osoan. Kalitateko produktuak preziorik onenean salgai jarriko dituzte elizpean atonduko dituzten erakustokietan. Hala ere, bihar emango diete jaiiei hasiera ofi-

ziala txupinazoagaz. Aurtan, Joseba Gorostiza Txirrindulari Elkarteko presidenteak jaurtiko du txupina.

Ana Otadui Elorrioko alkateak azaldu duenez, 139.000 euroko aurrekontua bideratu dute jaietara: "Aurtan diru-atal gehienek %10eko murrizketa izan dute". Azokako diru-atalean ez dutela murrizketarik egin gaineratu du alkateak, "iaz

izan zuen-eta jaitsiera". Ohiko ekitaldiei eutsi eta nobedadeak programatzeko, aste bitarteko egitaraua murriztu dutela adierazi dute Jai Batzordeko kideek: "Parte-hartzaile gehien izaten duten ekitaldiak indartu gura izan ditugu aurtan".

Sukalki Eguna

Aldatzekuako belartzan jendetza batzen du urtero Sukalki

Eguneko lehiaketak, eta ekitaldi nagusietakoa bilakatu da. Irailaren 7an, goizeko 08:00etatik 10:00etara izena emateko aukera izango dute parte hartu gura duten elorriarrek. Urtero legez, Iturrizoro Elkartek antolatuko du. Lehia baino gehiago da, baina, Sukalki Eguna. Bazkaritarako lagunartean elkartu eta jai giroaz gozatzeko aukera bat da. Bazkalostean, indarrak

hartuta Taberna Ibiltarian parte hartzeko aukera izango dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera Urarka inguruan. Plazan, berriz, Oihan Vega DJak girotuko du jai 18:45ean.

Ana Otadui Elorrioko alkateak azaldu duenez, 139.000 euroko aurrekontua bideratu dute jaietara

Tortilla txapelketa ere antolatuko dute irailaren 2rako. Osagai bakarrak olio, patata, tipula, arrautzak eta gazta izango dira.

Maialen Arregi elorriarra jaietako kartelaren egilea

> J. G.

"Gustura" gelditu da Maialen Arregi elorriarra jaietako kartel lehiaketa irabazita. Orain dela urte bi ekin zion lehiaketan parte hartzeari, eta aurtan asmatu egin du diseinuarekin: "Epaimahaiak aho batez hartu du erabakia", azaldu du Jone Guenetxea *Anboto* astekariko zuzendariak kartel egileari

Maialen Arregi arkitektura ikaslea da, eta 27 urte ditu; aurtan lurretako lehiaketan ere aurkeztu dela azaldu du

500 euroko saria ematerakoan. Herritarren botoak zenbatuta ere, finalisten artean egon da kartela. Arregi arkitektura ikaslea da, eta 27 urte ditu.

Kartelak zaletasun moduan sortzen dituela aitortu du. Aurtan lurretako lehiaketan ere aurkeztu da.

Elorriko jaietarako grafia "informala" aukeratu duela azaldu du aurkezpenean. Irudiei dagokienez, astoak feria irudikatzen du, kazolak Sukalki Eguna, tronpetak musika, eta txapli-
goak jaien hasiera.



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA

STIHL

SAME

pasquali

VIKING

CARON

BCS

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio -T/F: 94 623 18 03 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com

Koadrilak jai giroa sortzen eta gozatzen

Koadrilen Eguna eta Sukalki Eguna prestatzeko koadrilen batzarrak egiten hasi dira aurten

> AMAIA UGALDE

Lagunartean bazkaltzeko, egun bitan betetzen dute Aldatsekua-ko landa Elorrioko koadrilek. Egun horietan sortzen da herri- giro onena: asteleheneko Koadrilen Egunean eta Sukalki Egunean, jaien bigarren zapatuan. Aurten egun horiek prestatu eta koordinatzeko, koadrilen batzarrak egiten hasi dira.

Jokoetan parte hartzeko, Aldatsekuan eman beharko dute izena koadrilek, Koadrilen Eguneko bazkarian

Uda aurretik hasi ziren koadrilak batzartzen, eta Jai Batzordeak egitaraua jada lotuta zeukanez, ezin izan dira ekimen berriak sortu, baina datorren urteetarako koadrilen batzordea indartzea da asmoa.

Oraingoz, aurtengo jaietan koadrilen jokoen dinamika moldatzea erabaki dute. Azken bi urteetan hogeitak koadrila baino gehiagok parte hartu dute asteleheneko jokoetan, eta horregatik, joko dinamikoagoak pentsatu dituzte. Parte hartzeko, Aldatsekuan eman beharko dute izena koadrilek, bazkarian bertan. Koadrila bakoitzetik pertsona batek lagunduko du jokoen antolaketan eta koordinazioan.

Jatorduagaz hasi eta parrandagaz amaitzeko egunak dira Koadrila eta Sukalki egunak. Astelehenean, bigarren urtez, tortilla txapelketa edukiko dute, paella tradizionalaz gain. Zapatuan, Sukalki Egunean, mozarrotuta eta karrozekin batuko dira Aldatsekuan. Sukalki txapelketa Iturritzoroko elkarteak antolatzen du urtero, eta bertako kideek azaldu dutenez, ia, 110 taldek aurkeztu zuten gisatua, eta 1.500 lagun baino gehiago batu ziren bazkaritarako.



Getediaga elkartea

Launa artzain eta txakurren erakustaldia, San Agustinen

Artzain-txakur lehiaketa antolatu dute, lehenengoz. Bihar izango da saioa

> ITSASO ESTEBAN

San Agustin auzoko zelaian jardungo dute bihar, 17:30etik aurrera, Elorrioko Ferixa Nausiko jaietako I. Artzain-txakur lehiaketako parte-hartzaileak.

Lau artzainek gidaturiko lau txakurrek parte hartuko dute erakustaldi horretan: Aitor Urien abadiñarrak eta Nabarro txakurrak; Atxondoko Joseba Bazeta eta Txuti txakurrak; Aitor Tato ataundarrak eta Argi txakurrak; eta Jorge Oteiza oroztarak eta Azeri txakurrak.

Egun berean Arabako txapelketa jokatzeko dutenez, bihar ez

Aitor Urien abadiñarra eta Nabarro bere txakurra, eta, Atxondoko Joseba Bazeta eta Txuti txakurra ere ariko dira

Artzain-txakur txapelketa ofizialetan egiten diren antzeko probak burutuko dituzte parte-hartzaileak

da Arabako ordezkariak egongo Elorrioren, baina Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako parte-hartzaileak batzea lortu dute.

Txapelketa ofizialetan egiten diren antzeko probak burutuko dituzte parte-hartzaileak San Agustino saioan: ardiak hesi artetik igaroarazi, edota eskortan sartzea, esaterako.

Gerediaga Elkarteak antolatzen duen artzain-txakur txapelketa hiru aldiz egin izan dute San Agustin auzoko zelai horretan. Azken urteen ekitaldi hori egin ez denez, hutsune hori betetzeko proposatu dute biharko saioa.



KAMIKOPIAK

KOPISTEGIA

Fotokopiak • Koadernatzeak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxo kalea 9 • Tel.-Faxa 94 623 14 31 • 48230 ELORRIO
• kamikopiak@kamikopiak.com

BANAKETAK

MIOTA

S.L.








Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92

Kerixa Nausikoak 2013

CAFETERIA
IRISARRI
"Enri"
Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)

XNR
taberna
GOSARIAK - PINTXOAK - BOKATAK
BERRIOTHOA 43, 48230 ELORRIO - Tel.94 658 34 65

LEJARAZU
Jaietan pintxoak
eta bokatak
Urarka, 10 - Elorrio - 94 658 33 04

PARRA
taberna
parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

PORTALEKUA
EUSKAL PRESOK
PORTALEKURA

Katxo
Gastro Taberna
SAGARDOTEGIKO MENUA
GOSARIAK MERIXENDAK
BAZKARIAK EGUNERO ZABALIK
AFARIAK MENU BEREZIAK
San Fausto kalea, 25 - Elorrio - 94 658 29 67

Xelai
Taberna
Entsaladak Ranzak
Ardoak Pizpak
Ostentakak Olatzak...
Nizeto Urkizu, 37-39 | 48230 ELORRIO Bizkaia | T 94 655 02 66



100 produktorek parte hartuko dute domekan Elorrioko Ferixa Nausian

60 abeltzainek ekarriko dituzte animaliak; aurten poneyak eta txakurkumeak ere egongo dira

> I.E.

Irailleko lehenengo domekagaz batera badator urteroko feria. Herriko jaiei izena ematen dion ekimena egitarauko garrantzitsuenetakoa da, Fernando Azkarate zinegotziak azaldu duenez. Arrakasta eduki ohi du urtero, eta aurten ere horrela izatea espero dute. Abeltzain, nekazari eta artisauak batuta, 100 produktorek parte hartuko dute azokan.

Goizeko 09:00ak aldera zabalduko dute feria, eta 14:00ak arte bertan egongo dira produktoreak

60 abeltzainek ekarriko dituzte ferialekura euren animaliak. Behiak, ahuntzak, behorrak... Aurten poneyak eta txakurku-

meak ere egongo dira salgai, Azkaratek aipatu duenez. Abeltzain gehienak Elorrio eta inguruko herrietakoak izango direla adierazi du zinegotziak.

Nekazariak eta artisauak kontuan hartuta, 40 mahai ipiniko dituzte. Eskaintza zabala egongo da aukeran: ogia, txakolina, gazta, produktu ekologikoak, larruz edota beiraz egindako elementuak...

Egun berezia

Goizeko 09:00ak aldera zabalduko dute feria, eta 14:00ak arte bertan egongo dira produktoreak. Azkaratek esan du zita garrantzitsua izan ohi dela, eta herritarrentzako ere egun berezia dela, "ondo pasatzeko egun aproposa". Herritarrez gainera, Bizkaitik eta Gipuzkoatik jende asko etortzen dela eta jendetza batzen dela gogorarazi du.



Kontzertu dinamikoa eta alaia eskainiko du Vendetta talde nafarrak

'Fuimos, somos y seremos' diskoa aurkeztera datoz Elorriora Vendetta taldekoak; ikuspegi positiboagaz, festarako gonbita dakarte irailaren 7rako

> I.E.

"Kontzertuak ikuspegi alai batetik eskaintzen saiatzen gara". Vendetta taldeko Pello Reparaz berbak dira, euren eman-kizunez galdetuta. Kritika soziala ez dute alboratzen, baina ikuspegi positiboa gailentzea gura izaten dute. Eta festarako gonbita dakarte irailaren 7rako. Hiru disko dauzkate kaleratuta, eta azkena aurkezteko biran datoz Elorriora. *Fuimos, somos y seremos* laneko abestiekin dantzaz ipiniko dituzte jaizaleak. Aurreko lanetan kaleratutako *Begitara begira* edo *Buonasera* lako abestiak ere ez dira faltako. Euren aurretik, baina, Sugoi talde elorriarrak joko du.

'Fuimos, somos y seremos' laneko abestiekin dantzaz ipiniko dituzte jaizaleak

Nafarroako taldea da Vendetta, Skalariak zenaren errautsetatik jaiotakoa

Nafarroako taldea da Vendetta, Skalariak zenaren errautsetatik jaiotakoa. Bostetik lau ziren Skalariakekoak, eta Reparaz da kide berria. "Euren esperientzia ezinbestekoa izan da", esan du Reparazek taldekideei buruz. Tronboia jotzen du berak, eta abestu ere abesten du kanta batzuetan. Musikari dinamikoak direla adierazi du, ez daukatela abeslari edo *frontman*ik. Bere hitzetan, barruan daukatena kaleratzeko aukera dira kontzertuak. Uda gogorra, "*kañeroa*", eduki dute Vendettakoek, hainbat kontzertu eman dituzte-eta. Hala ere, bira amaitzean, Amerikara joateko asmoa daukate, lehenengoz.



C/ Elizburu, 46 -48
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Fax: 94 682 00 50
48230 ELORRIO
(Bizkaia)

ALBAÑILERIA
KURUTZONDO s.l.

ONTRACK
946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM
2013 - 2014 Matrikula epea zabalik

 **erdella**
egurak

Montaje de cajas de madera
Embalaje especial

Besalde 11, s/n Elorrio
Tel/Fax: 946 584 605

tel.: 94 658 29 96
630 64 35 99
● Nizeto Urkizu 14. behea
● Elorrio (48230) Bizkaia

NUKIEO



Danbor eta upel hotsek alaituko dituzte asteburuan elorriarren belarriak

Heldu eta ume, denak daude prest danborradan parte hartzeko. Ohi legeaz, abuztuaren 31n irtengo du Nagusien Danborradak; aurten lehenengo biderrez, biharamunean irtengo dute umeek

> A.B.

Danbor hotsez girotutako egunak izango dira datozen hauek. Izan ere, heldu eta ume, asteburu berean irtengo dute guztiek aurten lehenengo biderrez. Ohi-turari eutsiz, Ferixa Nausiaren bezperan irtengo du Nagusien Danborradak. Aurten ere, 100 lagun inguru batuko dira plazan, bihar: Etzeko txikiak ere ohi baino lehenago eduki beharko dituzte prest makilak eta danborrak; izan ere, aurten

aurrenekoz, lehenengo asteburuan irtengo du Umeen Danborradak. Irailaren 1a izango da euren eguna, 18:30ean.

2014an denak batera

Datorren urtetik aurrera berrikuntzak izango dira. Mila Arroyo antolatzaileak aurreratu duenez, 2014an, heldu eta ume, guztiak batera irtetea da asmoa. Gastatzaileak, kantinerak (elkarteko bana), banderak, danborrak eta upelak

jotzen dituztenak, musika banda, sukaldariak... Guztiek batera egingo dute danborradaren ibilbidea.

Aurtengoari dagokionez, baina, Nagusien Danborradak 23:00etan dauka jarritako hitzordua. Plazan batuko dira Tangieretik jaitsi ondoren; Errekakale igaroko dute gero, eta Lagun Toki, Alkartu eta Pitxar elkarteetan egingo dute geldialdia. Hori baino lehen, Alkartun batuko dira, afaldu eta, bide batez, indarrak hartzeko.

20-25 urte antolatzaile diharduen Mila Arroyok gogoratu duen moduan, Eloorrion 1969an irten zuen lehenengoz Nagusien Danborradak. “Lau bat urtez ez da egin, sasoiaren sasoi arazo politiko edo protestek eraginda. Baina, bestela, urtero-urtero irten du. Umeen Danborradak 1968an irten zuen estraineko. Hori, baina, urte gehiagotan geratu da irten barik”.

Errelebo falta

Arroyok urte asko daroaz antolatzaile lanetan. Danborradan, oster, behin baino ez du irten. Jubilatze asmorik duen galdetuta, errelebo falta ikusten duela dio: “Badut jubilatze gogoa, baina, errelebo falta da. Nik neuk ere, trajea jantzi, entsaiatu, afaldu eta danborradan irteteko gogoa dut”, dio Arroyok.

‘Paris Cabaret’, ikuslea 1900. urteko kabaret klasikora eroango duen musikala

Dantza, interpretazioa eta kantua uztartzen dituen ikuskizuna da ‘Paris Cabaret’; irailaren 6an taularatuko dute Arriola antzokian, Ferixa Nausikoen egitarauan

> A.B.

Belaunaldi berrien arrakasta bihurtu dira musikalak. Dantza, interpretazioa eta kantua uztartzen dituzte ikuskizunok. Irailaren 6an Arriola antzokian antzeztuko duten *Paris Cabaret* da horietako bat. Indar fisiko handiko artista gazteak, balio anitzekoak eta antzezte-genero guztiak menderatzen dituztenak igoko dira oholtza gainera, eta 1900. urteko kabaret klasiko batera eroango gaituzte.

Frantziako noble baten eta dantzari multzo bateko neska gazte baten arteko amodio istorioa du ardatz *Paris Cabaret*

Noble frantses baten eta dantzari multzo bateko neska gazte baten arteko amodio istorioa du ardatz

musikalak. Noble frantsesa dantzari gazteagaz maitemindu eta haren amets guztiak betearazi gura ditu, besteak beste, mundu osoan ezaguna izango den dantzari ospetsua izatea. Dirutza handia inbertituko du maite-

minduak, eta dantzari gazteak ametsa egia bihurtzea lortuko du.

Sentimenduak bor-bor

Hala ere, dantzari gaztea beste gizon gazte batez maiteminduta dagoela jakingo du noble frantsesak, eta horrek hiru pertsonaien arteko sentimendu talka eragingo du. Sasoi hartako dantza eta musika emanaldiek istorio osoa lotuko dute; “oso erritmo azkarra” eta koreografia “ederra” erabiliko dute horretarako, bertaratuko direnak “ikuskitunagaz bat egitea lortzeko”.



Galdaragintza

Forja artistikoa
Enpresen mantentzea



Berrioizabalbeitia, 10
Tel.: 94 658 45 47 - Fax: 94 658 28 88
48230 ELORRIO (Bizkaia)
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net



Eugenio Sánchez
Agustín Urien

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta industria mantentzea - Obra osteko garbiketa - Kristalizatuak...

Goleta, 10 - 2 esk. - ELORRIO - Tel.: 94 682 09 91



ALBAITARITZA KLINIKA

www.zaindu.net

Ibarra, 8 - 48230 Elorrio
Tel.: 94 682 04 94

JOSEBA GOROSTIZA | Jaietako pregoilaria eta Elorrioko Txirrindulari Elkarteko presidentea

“Txirrindulari Elkartek historiako unerik onenetakoa bizi du gaur egun”

Zapatuan, 20:00etan, Joseba Gorostiza Elorrioko udaletxeko balkoira igoko da jaiei hasiera emango dien pregoia irakurri eta txupina jaurtitzera; bere ondoan elkarteko sail denetako ordezkariak egongo dira



► **JOSEBA DERTEANO**
Elorrioko Txirrindulari Elkarteko presidente Joseba Gorostizak irakurriko du jaiei hasiera emango dien pregoia. Txirrindularitza barru-barrutik bizi du. Lan asko eragiten dio, baina bere saltsan ibiltzen dela dio. Gustuko lekuan, aldatsik ez.

Zeu bakarrik igoko zara balkoira?

Ez, Elorrioko Txirrindulari Elkarteko ordezkari batzuk igoko gara. Nigaz gainera emakumeen taldeko hiru txirrindulariak, eskola taldekoen izenean lau gazte, kadete bi eta zikloturista bi igoko dira. Zikloturistak errepideko eta mendi-bizikletako bana izan-

go dira. Elkarteko sail denetako ordezkariak igotzea gura dugu.

Pregoian zer aipatuko duzu?

Laburra izango da, sei lerro ingurukoa. Gurekin ez daudenak gogoratuko ditugu, ohitura den moduan. Pregoia irakurtzeko gu aukeratu izana eskertuko dugu eta jai onak eta osasuntsuak izatea opa izango diegu denei.

Jaietan zer antolatzen duzue?

Herri gymkhana antolatzen dugu. Eguaztenean izango da, 19:00etan, eta aurten laugarrenez egingo dugu. Bizikletagaz osatu beharreko gymkhana izango da. Oso harrera ona izaten du eta pozik gaude.

Zuk zeuk zelan biziko dituzu jaiak?

Pregoiaren eguneko goizean kadeeten taldeak lasterketa du Zerberion eta han izango naiz. Hurrengo egunean, Txirrindularitza Eskolakoekin Lekeition lehiatuko dugu. Domeka arratsaldean, berriz, Ugaon beste lasterketa bat izango dugu. Bestelakoan, astelehenean, Koadrilen Egunean, lagunekin paella bat egingo dut. Oporrak ditut beste aste bitan eta...

Herriko jaiak dira, oporretan zaude eta txirrindulari gazteekin batetik bestera ibiliko zara.

Lan egiteko oporrak dira (barrak). Badaramatzat zazpi ur-

te... Etxean ere esaten didate. Lasterketa bat dutela Asturiasen, beste batek beragaz joatea nahi duela Murtziara...

Zer jasotzen duzu ordainetan? Zer ematen dizu txirrindulari gazteekin horrela ibiltzeak?

Poztasun handia jasotzen dut. Jaietako aurkezpenean ere nire lana azpimarratu zuten eta pregoilaria izatea eta gehiago ere merezi nuela aipatu zuten. Baina txirrindularitza barrutik bizi dudalako egiten dut. Ez zait protagonista izatea gustatzen, ahal dudan guztian txirrindularitzaren alde lan egitea baizik, barrutik bizi dudalako. Agus Ruizen antzekoa naiz horretan.

Agus Ruiz, besteak beste, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko presidentea da eta zuk ere baduzu kargu bat.

Txirrindularitza eskolako ordezkaria naiz eta pistaren ar-

rrelako gauzek ikaragarri pozten naute.

Ziortza Isasi aipatu duzunez, Espainiako erlojupeko txapelketan zilarra irabazi berritan, sasoi betean dabil.

Oso une onean dago. Txapelketa horretan salto sinestezina eman du. Alicia Gonzalez (erlojupekoan irabazlea) fenomeno bat da. Iaz Gonzalezegandik ia 40 segundora sailkatu zen eta aurten bederatzi ehuneneko aldea bakarrik egon da bien artean. Horren atzean sakrifizio handia dago. Inork ez daki zenbat lan egin duen lortu duena lortzeko.

Zeu ere txirrindulari izana zara.

Durangoko Txirrindulari Elkartean hasi nintzen, gazte mailara arte. Gerora, esaterako, Iñaki Aiartzagüena eta Iñigo Cuestagaz ibili izan nintzen, neure kintakoak dira. Afizionatuetan hainbat taldetan ibili, mundu osoan lehiatu eta bizipen asko bizi izan nituen. Pistan ere ibili nintzen; Nestor Lejarretak asko irakatsi zidan. Asko eskertzen diot Nestorri irakatsi zidana.

Zer unetan dago orain Elorrioko Txirrindulari Elkartea?

Gaur egun historiako unerik onenetakoa bizi dugu. Txirrindularitza Eskolan 30 gaztetxotik gora dugu. Bizkaiko eskolarik handienetakoa gara, eta Euskal Herriko handienetakoak garela ere esango nuke. Elkartean gauden denon artean egindako lanaren ondorioa da. Kadete mailako hamalau txirrindulari ditugu. Bizkaian beste inork ez du hainbeste kadeterik. Durangoko Txirrindulari Elkartegaz elkarlanean dugun proiektu ilusiogarri baten ondorioa da. Laurogei zikloturista ere baditugu.

“*Ez zait protagonista izatea gustatzen, ahal dudanean txirrindularitzaren alde egitea baizik; barrutik bizi dut*”

loan ere banabil. Eskoletako lana gehien asebetetzen nauena da. Urteak joan eta gaur egun afizionatuetan dabilzan gazteak ikusterakoan, zutaz gogoratzea eta besarkada bat ematea oso gauza polita da. Edo gaur egun Ziortza Isasi zelan dabilen ikustea. Ho-



XNRA

gosariak-pintxoak-bokatak

BERRIO-OTXOA, 43 - 48230 ELORRIO

TEL.: 94 658 34 65



➤ Aisialdia

➤ IBILBIDEAK



Baselizen Ibilbidea ekimeneko bultzatzaileak, Iurretako San Migel plazan eginiko aurkezpenean.

Baselizen Ibilbidea, turistak Durangaldera erakartzeko amu berria

Dendak Bai merkatarien elkarteak, Urkiola Landa Garapenak, Gerediaga Elkarteak eta Iurreta eta Garaiko udalek turismoa bultzatzeko ekimen bat aurkeztu dute: Baselizen Ibilbidea

➤ MARKEL ONAINDIA

Turistak Durangaldera erakartzea. Hori da Dendak Bai elkarteak sustatu duen ekimen berriaren helburua. Ermiten inguruko ibilbide turistiko bat prestatu dute Iurreta eta Garai batuta. Udal horien, Gerediaga Elkartearen eta Urkiola Landa Garapena Elkartearen laguntza eduki dute. Ideia eskualdera zabaltzeko asmoa daukate, beste era edo formatu batzuetan bada ere.

Komertzioak indartzea helburu

Merkatarien elkarteko Guillermo Oarbeaskoaren arabera, ermita edo baselizen inguruko ibilbide honegaz komertzioak ere indartzea gura dute, horretarako bide bat izan ahal delakoan; herri-eremutik hur egonda, turistak denda eta tabernetara joango direla uste dute. “Durangaldea helburu turistiko lez sustatzea gura dugu”, azaldu du Oarbeaskoak. Lehenengo esperientzia da hau, Iurreta eta Garai kontuan hartu-

ta eta ermitak erabilia amu lez. Baina, etorkizunean eskualdera zabaltzeko intentzioa daukate, eta formatua ere alda daiteke. Baserri, mendi edo antzeko elementuek aukera sortzen dutela uste du merkatarien elkarteko ordezkariak. Urkiola Landa Garapeneko Juan Mari Torrikak ere hari beretik egin du berba: “Ondarea balioan ipintzea da”.

Iñaki Totorikaguena Iurretako alkate eta Amankomunazgoko ordezkariak aitortu du eskualdean asko dagoela egiteko turismoaren inguruan: “Erronka bat daukagu turismoaren garapenean. Horrelako iniziatibek lagundu egiten dute”. Hausnarketarako eta iritzi trukatetarako balio izan du ekimenaren aurkezpenak.

Sei ermita ikusgai

Baselizen Ibilbidea izena ipini diote ekimenari. Azaldu dutenez, Iurretako San Migel elizan hasten da. Hortik, Amatzeta eta Goiuria zeharkatzen ditu. Gero, Ga-

raiko Santa Katalina eta Momoitioko San Joanetik pasatzen da. Azkenik, Garaizarrera jaitsi eta hortik berriro San Migel elizara. Guztira, hamabost kilometro inguruko luzera dauka ibilbide horrek.

Era berean, interesgune den leku bakoitzean informazio panel bat kokatu dute. Informatzeaz gainera, panelek badiukate beste funtzio bat: QR kodeagaz –telefono mugikorren aplikazio batzozketetan parte hartu ahal izango da.

Zabalpenean murgilduta

Ekimen turistikoaren berri emateko, triptikoak argitaratu dituzte mapa, irudi eta informazio guztiagaz. Esate baterako, komertzioen helbide eta datuak agertzen dira bertan, sektoreka sailkatuta. Eskuorri horiek herrietan banatuko dituzte. Prentsaren aurrean egindako aurkezpenaren ostean, ekimenaren zabalpenean murgilduta dabilta antolatzaileak.

Ideia eskualdera zabaltzeko asmoa daukate, beste era edo formatu batzuetan bada ere

Oarbeaskoaren arabera, ermita edo baselizen inguruko ibilbide honegaz komertzioak ere indartzea gura dute

Lehenengo esperientzia da hau, Iurreta eta Garai kontuan hartuta eta ermitak erabilia amu lez

laguntzaileak



ERROTARITXUENA

DURANGO

*Imajinatzen duzu?***Etxebizitza hau zurea izan daiteke****Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan**

SabadellGuipuzcoano

**Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotua**

Finantzaketa %100era arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuta

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure webgunera

www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

Kirola

RUBEN PEREZ | 31 urte, Zaldibar; Euskaltel-Euskadiko txirrindularia |

“Errealista naiz eta badakit gaitz dudana txirrindularitzan jarraitzea”

Zaldibartarrak ez du ulertzen iaz hain apustu indartsua egin ondoren, taldea bat-batean desagertzea



Irailan Canadian izango diren klasikak izango dira Euskaltel-Euskadigaz lehiatuko dituen azken lasterketa biak.

> JOSEBA DERTEANO

Ruben Perezentzat Kanada-ko klasika biak izango dira Euskaltel-Euskadigaz lehiatuko dituen azken lasterketak (Quebec eta Montrealen irailaren 13an eta 15ean). 2014ko abendura arte taldera lotzen duen kontratua ezingo du bete, Euskaltel-Euskadi desagertu egingo delako. Dagoneko talde bila dabil, baina kontua gaitz dagoela dio.

Zuei noiz eta nola jakinarazi zizueten Euskaltel-Euskadi desagertu egingo zela?

Albiste publiko egin zuten bezperan batzar batera deitu gintuzten posta elektronikoko bidez. Irakurri nuenean igarri nuen albisteak ez zirela onak izango. Aurretik Alvaro Gonzalez de Galdeanori-eta egoeraren berri galdetu genien, eta esperantza ematen saiatu ziren arren, ikusten zen ezetz.

Beraz, sumatzen zenuten zer zetorren.

Enpresa asko langileak kaleratzen dabiltzala ikusten duzu, eta testuinguru horretan gaitza da txirrindulari talde bati hiru milioi euro emango dizkiotela entzutea. Eusko Jaurlaritza eta erakunde publikoak ere alde guztietatik gastuak murrizten dabiltza. Athletic-en zelai berria egiteko milioiak eman dituzte eta, egia esan, horrelako kontuek amorratu egiten zaituzte.

Batzuentzat bai eta besteentzat ez. Horrek zer edo zer arraroa gertatzen dela pentsarazten digu, ezagutzen ez dugun zer bait. Baina dakiguna da taldea desagertu egingo dela, eta denok gaude nahiko eraginda.

Denboraldi hasieran, filosofia aldaketarekin, aro berri baten atarian zeundetela ematen zuen.

Bai, horregatik ez dugu ulertzen zer gertatu den. Denok galdera bera egiten diogu geure buruari eta ez dugu erantzunik. Eusko Jaurlaritza azken unean saldu ta utzi dituela esan digute. Ez dakit hori izango den edo zer den, baina hain apustu indartsuaren ostean orain bat-batean dena bertan behera geratzea ez dugu ulertzen.

Arlo pertsonalean zelan zaudete? Kontu honek guztiak zer sentazio utzi dizu?

Uste dut oraindik errealtatera egin barik nagoela. Desilusio handia da. Munduko edozein txokotan, Australian zein Kanadan, Euskaltel-Euskadiren lagun talde bat aurkitu izan dut. Hori deigarria da eta beste taldeek ez dute halakorik. Taldea desagertzeak tristura handia eman dit.

Zelan eragingo dio euskal txirrindularitzari?

Txirrindularitzarako txarra dela uste dut, eta ez arlo profesionalari begira bakarrik, baita gazte mailako txirrindulariengatik

ere. Gogoan dut gaztetxoa nintzeanean ONCE eta Banesto lako taldeak urrun ikusten nituela, eta etxean talde bat izateak ilusioa sortzen zidala, bertara heltzeko aukerak ikusten nituelako. Afizionatueta nengoenan pedalei eragiten jarraitzeko indarra eta ilusioa ematen zidan horrek.

Zaletasunari ere eragingo dio?

Samuel Sanchezek Frantziako Tourrean Luz Ardideneko etapa irabazi zuen egunean, ni Gorka Eizagirrerekin nindoan, eta animatu behararen animatu beharraz, zaleek aurrera egiten ere ez ziguten uzten. Geratu egin behar izan genuen. Ez genuen errepiderik ikusten. Oso une hunkigarria izan zen. Alde horretatik, erreferentzia zen taldea galduko dute zaleek. Baina bestalde, zale itzel

horiek euskal txirrindulariak zein gainerakoak animatzen jarraituko dute, seguru.

Arduradunek zuekin banan-banan askatasun agiria negoziatzen berehala hasteko asmoa erakutsi dute. Batzartu zara arduradunekin?

Asteon Mikel Astorkizari deitu diot, eta laster gaiaren gainean berba egiteko denekin geratzen hasiko direla adierazi dit. Horixe da oraingoz esan dezakedana. Etorkizunari begira, ordezkari bat hartu dut eta begira gabiltza. Zerbait irtetea espero dut, baina ez digute esperantza handirik eman. Oso denboraldi txarra da taldea aurkitzeko. Talde berririk ez da sortu eta, kontrara, batzuk desagertzen dabiltza: Vacansoleil, esaterako. Saur-Sojasun ere estu dabil, eta desagertu egingo dela uste

dut. 80 bat txirrindulari talde barik egongo dira, eta tartean izen azpimarragarriak daude. Aurten profesionaletan baja dezente egongo dira.

Beraz, baliteke txirrindularitza utzi behar izatea?

Aurrera jarraitzeko esperantza dut, baina errealista naiz eta badakit oso gaitz izango dudana. Beste bi-hiru urtean jarraitzea gustatuko litzaidake, baina ezin badut, atsekabe itzela ere ez da izango. Nahiago nuke txirrindularitzan jarraitu, baina hala ez bada, ez naiz deprimituko.

2005etik Euskaltel-Euskadiri aritu zara. Zer eskaini dezakezu talde berri batean?

Txirrindulari borrokalari eta langilea naiz. Hori da nire zibilua. Esprinterrei azken kilometroetan kokatzen lagundu diezaiek, baita azken metroetan esprinta abiatzen ere. Eskalatzaileei ere laguntzen diet aurrelana egiten, edota lehen eta bigarren mailako mendateetan.

“

Ez dugu ulertzen zer gertatu den; denok galdera bera egiten diogu geure buruari eta ez dugu erantzunik”

Azken metroetarako duzun abiadura gehiago aprobetxatu zenezakeela uste duzu?

Lasterketa bat lehiatzerako orduan dena ez da abiadura. Garbi esanda, esprintak lehiatzeko zoratuta egon behar duzu. Pentsatu barik, balaztarik erabili barik ibili behar da. Nik pentsatu egiten dut eta balazta darabilt. Zaila da une horietan norberak baino konfiantza handiagoa duten txirrindulariei aurre egitea. Ez naiz azken metroei buruz bakarrik ari. Azken hamabost kilometroak tentsio handikoak dira.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

> **FUTBOLA**

Aurpegi berriak eta gaztetetasuna nagusi Durangoko Kulturalean

Hamaikakoan bederatzi jokalaria berrirekin irabazi zuen Gernikan



Durangoko Kulturalearen aurtengo talde argazkia.

> **JOSEBA DERTEANO**

Gernika 0-1 menderatuta, Durangoko Kulturalek garaipenagaz ekin zion Hirugarren Mailako denboraldiari joan zen asteburuan. Iazko taldeagaz alderatuta hasierako hamaikakoan bederatzi aurpegi berri

Gernikan jokatu zuten hamaika jokalarietatik seik hogeitazko urte edo gutxiago dituzte

zituen taldeari konfiantza hartzeko ere balio izango dio hain zela zailean lortutako garaipenak.

Harrobiaren eta gaztetasunaren aldeko apustua egin du aurtengo Kulturalek. Gernikan zelairatu ziren hamaika jokalari

larietatik seik 20 urte edo gutxiago dituzte. Ibon Arizmen-diarrietak (berari egin zioten Beñat Alberdik gauzatu zuen penaltia), Jon Galarzak (iaztik jarraitzen duenetako bat) eta Asier Nuñezek (Portugaleteko ekarri dute), esaterako, 19 urte dituzte.

Talde nagusia harrobiko jokalariz hornitu dutenez, Kulturaleko gazte mailako taldeak ondo ezagutzen dituen entrenatzailea fitxatu du zuzendaritzak: Imanol de la Sota. Iaz Iurretako bigarren entrenatzailea izan zen, baina aurretik Kulturaleko behe mailatan sei urtez egona da. Hain zuzen, Ohorezko Mailara igondako gazte mailako taldea berak zuzendu zuen. Orduan bere aginduetara izan zituen sei jokalaria lehen taldean dabilta gaur egun. Beraz, ezagutzen du esku artean dabilen taldea. Berarentzako ere estreinako denboraldia izango da Hirugarren Mailan. Gainera, kirol zuzendari berria ere badauka Kulturalek: Rikardo Txintxurretaren tokian Patxi Bolaños ipini dute. Javier Uria Athleticeko presidente zen sasoiaren Lezaman lan egingakoa da Bolaños. Jokalari lez, Athleticegaz liga bi irabazi zituen 1982/83 eta 1983/84 denboraldietan.

Zapatuan, 18:00etan, igo berria den Soduperen aurka jokatuko dute ligako lehen partidua.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Denboraldi hasiera

Abuztua bukatzeaz dela, gure inguruko talde guztiak aurre-denboraldian murgilduta daude. Aurtengo aldaketak izango dira gure taldeetan, baina den-denek ilusioz eta gogoz lan eginda, denboraldi ona izateko esperantza dute.

Tabirakoko talde nagusi biak indartsu hasi dira eta aldaketa nagusia nesken taldean izan da. Alberto Molinak hainbat denboraldi bikain egin eta gero, aurtengo Jesus de Vicente izango da entrenatzailea. Aldaketa honekin, ea aurreko urteko denboraldia borobildu eta aurtengo goragoko mailara igotzeko aukerarik dute.

Mutilen taldean ez dago entrenatzaile aldaketarik, baina aurtengo Tomas de Castro jokalaria gazte asko talde nagusira igo dituzte, bada nahikoa berrikuntza. Honek zailtasunak ekar ditzake, baina lan gogorra eginda eta denen konpromisoarekin, denboraldi polita izan daiteke.

Aldaketa nagusia Zornotza taldeak izango du. Joan zen denboraldian LEB mailara igo ziren Mikel Garitaonandia entrenatzailearen eta Ibon Carreto jokalariren gidaritzapean. Aurtengo dena dela, durangar bi gehiago izango dira taldean: Fernando Azkune entrenatzailea eta David Quero jokalaria. Beste hainbat jokalaria berri izango dira: Iker Salazar, Borja Mendia, Unai Calbarro... Jokalari berriek taldea indartuko dute eta euren ekarpena oso lagungarria izango da kategoria indartsu horretan.

> **TXIRRINDULARITZA**

Bederatzi ehunenek aldendu dute Ziortza Isasi urretik

Elorriarrak zilarra irabazi du erlojupeko Espainiako txapelketan, junior mailan

> **J.D.**

Ziortza Isasik (Elorrio, 1996) erlojupeko zilarrezko domina jantzi zuen junior mailan, joan zen asteburuan Murtzian jokatu zen Espainiako txapelketan. Eta pedalkada bi lehenago sartu izan balitz, urrezko domina jantziko zukeen. Izan ere, Alicia Gonzalez Asturiasko txirrindularia-rengandik (16.04.003) bederatzi ehunenenera helmugaratu zen: 16.04.092. Hala ere, zilarra lortzea emaitza bikaina da.

Datozen asteetan pistan izango du burua elorriar gazteak. Irailaren 13tik 15era junior mailako Espainiako txapelketa lehiatuko du Madrilgo Galapagar belodromoan eta hainbat domina irabazteko faborito da. Izan ere, iaz hiru modalitatetan (abiadura olinpikoan, taldekako jazarpenean eta puntuazioan) irabazitako urrezko dominak defendatuko ditu. Horrez gainera, banakako jazarpenean zilarrezko domina irabazi zuen iaz.



Ziortza Isasi podiumeko ezkerrean zilarrezko dominarekin.

clínicadental
hortz
klinika

b. unamunzaga
e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, beheka - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51


Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa


BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK
ETA BEROGAILUAK, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

JAIK!

2013ko Iraila | Izurtza




IZURTZAKO



JAIK

ABUZTUAK 30etik IRAILAK 8arte



2013



IZURTZAKO JAIEN EGITARAUA

Abuztuaren 30a, barikua

16:00 Frontenis txapelketa.

20:00 Txupinazoa eta triki-poteoa.

23:00 Kontzertuak eta DJak Gaztelekuan: Txo Proyect, Tributo To Barricada eta Puto Bastardo.

Abuztuaren 31, zapatua

12:00 Marmitako lehiaketa.

13:30 Enkartelada.

14:30 Marmitakoaren aurkezpena.

15:00 Herri bazkaria.

17:30 Bingoa.

Irailaren 1a, domeka - Santa Ageda

10:00 Kalejira: Jaizale.

11:00 Meza basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldearen saioa.

13:00 Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Bakarriketak.

17:00 Apustu herrikoia.

19:00 Lotxo taldea.

Irailaren 6a, barikua

18:00 Frontenis txapelketa.

22:00 Antzerkia frontoian.

Irailaren 7a, zapatua - Santo Tomas

10:00 Kalejira: Jaizale.

11:00 Meza basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldearen saioa.

12:30 Bertsolariak: Garikoitz Sarriugarte, Eñaut Uruburu eta Aitor Bizkarra.

13:30 Gorriti eta bere abereak.

16:30 XXII. Mountainbike Txapelketa.

18:00 Igel txapelketa.

19:00 Tortilla txapelketa.

20:45 Marokoko janarien dastaketa.

21:30 Afari herrikoia.

23:00 Luhartz.

Goizaldean, txokolatada. Mozorro gaua (gai librea).

Irailaren 8a, domeka - Andra Mari

10:00 Kalejira: Jaizale

11:00 Meza Erdoitzako basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldearen saioa.

12:30 Pilota partiduak.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

16:00 Umeen jolasak.

17:00 Mus txapelketa, Argintxu elkartean.

17:30 Kiki eta Koko pailazoak.

18:30 Umeentzako tailerrak Etxetorreko gazteek gidatuta.

RECUPERACIONES Y TROCEADOS, SAL

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxe: 94 681 89 79
48213 IZURTZA
info@recytro.net
www.recytro.net



Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

Galdaketa eta
siderurgiarako produktuak

VESUVIUS



Trikiti doinuekin abiatuko dituzte gaur Andramariak

Izurtzarrek 20:00etan jaurtiko dute txupinazoa. Gero, triki-poteoa egingo dute

> A.B.

Gaur abiatuko dituzte izurtzarrek Erdoitzako Andra Mari jaiak. Txupinazoa 20:00etan jaurtiko dute, eta, gero, triki-poteoa izango da. Rock doinuek girotuko dute gaua: Txo Proyect, Tributo To Barricada eta Puto Bastardo taldeek kontzertua emango dute Gaztelekuan.

Hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera egongo da iraila-

ren 8ra bitartean. Gastronomia lehiaketak, bertsolariak, antzerkiak, dantzak, umeentzako jolasak, pailazoak... Denetarikoko ekitaldiak izango dira aukeran.

Erromeria giroak ere ez du hutsik egingo. Etzi, adibidez, Lotxok egingo du dantzarako gonbita. Irailaren 7an, berriz, Luhartz taldeak. Mozorroa janzteko eguna izango da hori; aurten, gaia libre da.

Erdoitzako Andra Mari

Irailaren 8a dute egun handia, Erdoitzako Andra Mari eguna. Jolasak, tailerrak, eta Kiki eta Koko pailazoen saioa egongo dira umeentzat. Jubilatuek bazkaria izango dute irailaren 7an, Santo Tomas eguna aurreratu dute-eta. Ohi lez, bisitari ugari batuko ditu Santa Ageda egunak ere. Dantzariak, herri bazkaria eta apostu herrikoia egongo dira.

Marmitakoa eta patata tortilla prestatzeko gonbita

> A.B.

Bazkaltzeko, afaltzeko, mokadubat egiteko... Mahaiaren bueltan elkartzeko ohitura ei dugu euskaldunok, areago eta gehiago jai giroan. Ezin ukatu gastronomiak gurean duen erantzun ona. Herri eta auzoetako jai egitarau gutxitan huts egiten dute bakailao, tortilla, paella edota marmitako txapelketek. Izurtzan

Biek ala biek oso harrera ona izaten dute, antolatzaileek aitortu legez; iaz, adibidez, 40 patata tortilla aurkeztu ziren

ere luzatu dute marmitako eta patata tortilla lehiaketetan parte hartzeko gonbita.

Oso harrera ona

Biek ala biek oso harrera ona izaten dute antolatzaileek aitortu legez. Iaz, adibidez, 40 patata tortilla aurkeztu ziren, eta aurten ere beste horrenbeste espero dute; irailaren 7an izango da. Marmitako lehiaketa, berriz, bihar izango da. Iaz paella izan zen, eta aurten, horren orde, marmitakoaren txanda izango da.

Mendi-bizikleta ibilaldiagaz zita

Arrakasta du tradizio bilakatu den ekitaldiak

> AITZIBER BASAURI

Hainbat lagun elkartzen dituen ekitaldia da Izurtzako jaietako Mountain Bike ibilaldia. Urtez urte, ekitaldia tradizio bilakatu da, eta aurten ere ez diote hutsik

dutenez, ekitaldi honek “urte batzuk daroaz dagoeneko, eta parte-hartzaile kopuru polita batu ohi da; Izurtzako bertako eta Durangaldeko zaletuak izaten dira batik bat”. Bitano eta Nebera inguruan egiten dute ibilbidea.

“Parte-hartzaile kopuru polita batu ohi da; Izurtzako bertako eta Durangaldeko zaletuak izaten dira batik bat”

Bertso saio bikoitza

Bertsolariek ere ez dute hutsik egingo Erdoitzako Andra Mari jaietan. Saio bi antolatu dituzte. Iratxe Ibarrek, Oihana Bartrak eta Erika Lagomak jardungo dute Santa Ageda egunerako presatutako saioan; 13:00etan hasiko dute euren jarduna.

Bigarren bertso saioa, berriz, irailaren 7an izango da. Egun horretarako, Garikoitz Sarriugarte, Eñaut Uruburu eta Aitor Bizkarra gonbidatuko dituzte antolatzaileek, hirurak Durangaldekoak. 12:30ean hasiko dira euren kantaldiagaz.



Bodega Launa
Arabar Errikoa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

IZURTZAKO HERRIKO TABERNA

BEREZITASUNAK
Urdaiazpikoa - Solomo iberikoa
Gazta - Salamancako txorizoa

Tel.: 94 620 20 24 - IZURTZA



JATETXE GIDA



HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO

Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO

Tel.: 94 620 39 10

Eguneko menua. Eguerdietan: entsaladak,
errazioak eta plater konbinatuak.
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.



PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a

Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZ barne)

Inmobiliariak

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

**Inmobiliaria**
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hasiera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALEA: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

BASERRIAK SALGAI

IZURTZA

- Baserria salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3/5 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldea, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- ERROTARITXUENA: Estreinatze. Halla. Sukalde jantzia, logela 1 edo 2, egongela eta 2 komun. Eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/ trasteleku eta sotoa.
- MONTEVIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-ARLOZABAL: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Terraza handia.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- BERRIZ: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trastelekua.
- BERRIZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ELORRIO: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekua eta garajea.
- ELORRIO: Berrito eraikitze. Etxe lursailarekin.
- IURRETA: Halla, egongela-jangela, sukaldea office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekua. Berriztatua.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA



- Eraikitzen ari diren pisuak: 1, 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. Hainbat azalera eta orientazio. ERDU eta ERAKUTSIKO DIZKIZUGU!



PLATERUENA PLAZA

- Pisu erdi berria: 3 logela, egongela, sukalde hornitua, 2 komun, garajea eta trastelekua. Bizitzaren sartzeko moduan. Herri erdi-erdian. 290.000 €



ASKATASUN ETORBIDEA

- Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, despentsa, 2 komun. Garajea eta trastelekua. 265.000 €



MARTXOAREN 8ko KALEA

- Erdi berria. 2 logela, egongela, sukalde hornitua, 2 komun, 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 235.000 €



ABADIÑO, ERDIGUNEA

- Oso-osorik berriztatuko etxea salgai. Beherengo solairua, lehenengo solairua eta estalkipea. 139.000 €

Aipatutako etxebizitzet gain, Durangalde osoan etxebizitzet aukera zabala dugu, 50.000euro-tik aurrera.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA BERRIAK ESTREINATZEKO

- ZALDIBAR: Kurutzezar plaza/Solonagusia. Garaje eta trastelekuarekin. Prezio bereziak.
- IURRETA: estreinatze. 1, 2 eta 4 logela. 2 komun. Ganbara. Trastelekua. Garajea aukeran. 160.000 €.
- ATIKOA: berria. Estreinatze. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Trastelekua eta garajea aukeran. 212.000 €. BEZ barne.

AUKERA

- SAN ROKE: 90 m2, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 206.000 €.
- MURUETATORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. 180.000 €.
- ZALDIBAR: 3 logela. Eguzkitsua. Trastelekua. 84.000 €.
- DURANGO: 2 logela, egongela eta komuna. Igogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. 116.000 €.
- BERRIZ: Iturritza. 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Despentsa. Berogailua eta igogailua. Ganbara eta garajea. 211.200 €.
- MATIENA: 3 logela eta egongela. Ganbara. Altuera ona. 126.000 €.
- IURRETA: 70 m2. 3 logela eta egongela. Igogailua. Garajea aukeran. 186.000 €.
- DURANGO: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. Bizitzaren sartzeko moduan.
- IURRETA: 3 logela. Eguzkitsua. 50.000 €.
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Igogailua. 150.000 €.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO: 2 logela, egongela eta sukalde-jangela. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. 149.652 €.
- MONTEVIDEO: 3 logela eta egongela. Igogailua.
- FRAI JUAN ZUMARRAGA: Atikoa. 2 logela eta 2 komun. Terraza eta ikuspegi ederra. 186.000 €.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m2. Estreinatze. 1270 m2-ko lursaila.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000 €.
- FRANZISKO IBARRA: 2 logela, komuna eta egongela. Eskegitokia. Ganbara eta garajea. 235.000 €.
- SAN IGNAZIO: 105 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 260.000 €.
- TABIRA: Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Trastelekua eta ganbara. 252.400 €.
- GALLANDA: apartamentua. Trastelekua eta garajea. 166.000 €.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. Igerilekua. Eguzkitsua. 240.000 €.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta egongela. Terraza. Berriztatua. 211.000 €.
- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 278.000 €.
- ASKATASUN ETORBIDEA: erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. 276.000 €.
- DURANGO: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- SAN IGNAZIO: garaje itxia. 21.000 €.
- IURRETA: Garaje itxia.

LOKALAK

- IBAIZABAL: 40-100 m2. 400 €.
- ASKATASUN ETORB.: 40 m2. Egokitua. 450 €.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600 €.
- ARTEKALEA: Alokairuan. 180 €.

AGENDA

ANBOToko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Abuztuaren 31n, Elorrión

Azoka Txikia

Jendea etxeetako ganbaretan gordetako gauzak berrerabili eta birziklatzera bultzatzea helburu hartuta antolatuta dute Elorrioko V. Azoka Txikia. Askotariko tresneria, jantziak eta bestelakoak trukatzeko eta salerosteko aukera izango da, bihar, Elorrioko plazan.



Erakusketa

:: DURANGO

Irailaren 8ra arte, **Javier Sotoren artelanak**, Arte eta Historia Museoan.

:: ELORRIO

Irailaren 30era arte, **Enrique Larramendiren lanak**, Katxarro jatetxean.

:: GARAI

Abuztuaren 31ra arte, **Zubiaurrearren begietatik**, herrian zehar.



Dantza

:: IURRETA

Irailaren 4an, 20:00etan, **Volkstanz Gruppe Frommern (Alemania) eta Mikel Deuna (Iurreta)**, plazan. Euria bada, frontoian.



Ikastaroak

:: BERRIZ

Irailetik abendura, **Emakumeen Jabekuntza-rako Eskola 2013: Emakume ahotsak euskal literaturan; Jendaurrean hitz egiteko teknikak; Nola konpondu gatazkak nire eguneroko bizimoduan; Ai nire maitea, maite nazazu gutxiago baina hobeto; Topaketa kontatuz eta munduko emakumeen literatura**. Informazio gehiago: www.berriz.org.



Azoka

:: ELORRIO

Abuztuaren 31n, 10:00-14:30, **V. Azoka Txikia**, plazan.



Musika

:: DURANGO

Irailaren 7an, 22:30etan, **Jai senegaldarra**, Plateruenean.

Irailaren 13an, 21:30etan, **Markinako Senegaldar Elkartearen 10. urteurrena**, Plateruenean.



Bakarrizketa

:: DURANGO

Irailaren 21ean, 22:00etan, **Dani Mateo**, Plateruenean.



Omenaldia

:: BERRIZ

Irailaren 11n, 18:00etan, **Frankismoaren biktimei gorazarrea**, Urtiaga plazan. Gero, **1937ko dokumentalen emanaldia**, Kultur Etxean.



Antzerkia

:: ELORRIO

Irailaren 20an, 22:00etan, **Lingua Nabajorum**, Arriolan.



Jaiak

:: ELORRIO

Abuztuaren 30ean, **Aukeren Azoka**, egun osoan. 19:00etan, **pilota partidua**, plazako frontoian. 20:00etan, **frontenis txapelketaren finala**, plazako frontoian. 23:00etan, **kontzertua**, Txosnagunean.

Abuztuaren 31n, 11:30-17:00 **jolas parkeak**, frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. 17:30ean, **Elorrioko I. Artzain txakur lehiaketa**, San Agustín auzoan. 19:00etan, **Bits jaia**, frontoian. 19:15ean, **Ordiziako Buruhandi eta Erraldoiak**, plazan. 20:00etan, **txupinazoa eta pregoia**. 23:00etan, **Nagusien Danborrada**, plazan. 00:20an, **Suzko zezena**, plazan. 00:30ean, **Blues Thorpes**, Urarka kalean.

Irailaren 1ean, 10:00etan, **Abere eta nekazaritza azoka**, Feriagunean. **Goi-zean, txistularien kalejira**.



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa:

Cazadores de sombras

Zuzendaria: Cassandra Clare

- barikua 30: 22:00
- zapatua 31: 19:45/22:30
- domeka 1: 19:45
- astelehena 2: 21:00

Epic 3D

Zuzendaria: Chris Wedge

- barikua 30: 19:30
- zapatua 31: 17:00
- domeka 1: 17:00
- astelehena 2: 18:30
- martitzena 3: 20:00

2. aretoa:

Cazadores de sombras

- barikua 30: 19:30
- zapatua 31: 17:00
- domeka 1: 17:00
- astelehena 2: 18:30
- martitzena 3: 20:00

Epic 3D

- barikua 30: 22:00
- zapatua 31: 19:45/22:30
- domeka 1: 19:45
- astelehena 2: 21:00



Abuztuaren 31ra arte, **Garain**

ZUBIAURRE ANAIEN BEGIETATIK

Bihar arte izango dira Valentín eta Ramon Zubiaurre margolarien 1900 eta 1901 urteetan egindako argazkien bertsio erraldoiak Garain zehar ikusgai. Udalak eta Gerediaga Elkarteak antolatuta dute ekimena.

10€
HAMARREKO
MENUA

10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) /
MENU ERDIA 7,50€ / UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ /
ZAPATUETAKO MENUA 13€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ /
ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ /
MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /



> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneke 14:00ak arteko epea



> Zorionak **Amair** eta **Malen**, amama Kontxi ta aitite Pedroren partez. Asko maite zaituztegu!



> Zorionak **Eider**! Gure printzesak hiru urte bete ditu jada. Musu handi bat denon partez, eta batez ere aitaxo, amaxo, eta Inharren partez.



> Abuztuaren 16an eta 30ean zuen urtebetetzeak izan dira. Zorionak **Jesus Mari** eta **Jon Legorburu**, amaxoren partez. Musu handi bat.



> Abuztuaren 29an, **Itsaso Urizarrek** zortzi urte bete ditu. Zorionak gure neska maitiari etxeko guztien partez. Musu potolo-potolo bat!



> Zorionak **Ilhigo** eta **Irati Ogiza** bikoteari familiaren partez, batez ere Aner eta Izarren partez.



> **Endika Fernandez**, egunero emandako alaitasun eta sinpatiatatik, eta zure urtegunagatik noski, zorionak! Ama eta aitaren partez.



> Zorionak neskak! Abuztuaren 6an **Nagorek** eta **Ainhoak** 20 urtetxo bete zabezan, eta **Irati** Abuztuaren 13an. Espero dogu zuen urtegunien ondo ospatu izena. Patxo erraldoi bat zuen lagunaren partez.



> Hainbeste maite dogun **Martatxu** Edinburgora joan zen uztailaren 26an eta koadrilakoen partez zorte on eta... Mosu handi bat! Laurak 25 urte bete zituen uztailaren 30ean. Koadrila osoaren partez, zorionak!



> Aupa txapeladun! Munduko karateka onenari. Ondo pasa zure urtebetetzean eta ostikadarik ez emon! Zure familiaren partez.



> **Matxalen Fernandez Berrojalbizek** 10 urte bete zituen uztailaren 23an. Zorionak aitaxo eta amaxoren partez.



> Zorionak **Olatz**, zahartzen zabiz eta amaittu die zure ikasle urteiek baina animo eta disfrutauuu...mordor!!!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Maide

> Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean tarta bat zozkatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da zorion agurrarekin batera kontakturako datuak bidaltzea.

> BOTIKAK

BARIKUA, 30
09:00-09:00
• **GAZTELUMENDI** (J.A. ABASOLO 2 - DURANGO)
ZAPATUA, 31
09:00-09:00
• **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)
09:00-13:30
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
• **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)
• **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA**
(BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)
09:00-22:00
• **BENGOA** (JOSE ANTONIO AGIRRE 1 - ATXONDO)
DOMIKA, 1
09:00-09:00
• **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
ASTELEHENA, 2
09:00-09:00
• **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
09:00-22:00
• **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA**
(BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)
MARTITZENA, 3
09:00-09:00
• **GAZTELUMENDI** (J.A. ABASOLO 2 - DURANGO)
EGUAZTENA, 4
09:00-09:00
• **ETXEBARRIA** (MONTEBIDEO 2 - DURANGO)
EGUENA, 5
09:00-09:00
• **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)
09:00-22:00
• **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 94 681 09 49
Osakidetza 94 600 72 00
Ertzaintza 94 466 93 00

> GARRAIOAK

Euskotren 902 54 32 10
Bizkaibus 94 448 40 80
Pesa 902 10 12 10
Continental Auto 945 286 466

> TAXIAK

Abadiño 94 681 44 70
Matiena 606 459 988
Durango geltokia 94 681 10 01
Elorrio geltokia 94 682 00 40
J.L. Uriarte 670 402 002
I. Estebez 670 678 273
M. Galeano 670 409 330
Iurreta taxi auzunea .. 688 618 690
Berrizko auzo taxia .. 620 022 800

> EGURALDIA

14°
22° ZAPATUA ☁
11°
27° ASTELEHENA ☀

> UDALAK

Abadiño 94 621 55 30
Atxondo 94 682 10 09
Berriz 94 682 45 84
Durango 94603 00 00
Elorrio 94 658 27 12
Garai 94 681 63 93
Iurreta 94 620 12 00
Izurtza 94 681 35 48
Mallabia 943 17 14 61
Mañaria 94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar 94 682 70 16

> UDALTZAINGOA

Abadiño 94 621 55 33
Berriz 94 682 40 36
Durango 94 603 00 00
Elorrio 94 682 02 18
Iurreta 94 620 08 88

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga 0,80 euro
Letxuga haritz hostoa 1 euro
Azelga 2 euro/kg
Espinaka txorta 1,20 txorta
Berakatz freskoa 1,50 txorta
Ilarrak 6 euro/kg
Tomate kontserba 3,90 euro/potea
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Gari integraleko ogia 3,30 euro

“Zapatariaren lanean, nagusiak dendara etortzen diren denak dira”

Zapatari ofizioa ikasi du Arrillagak; konponketak egiten hasi da eta bere oinetakoak ere egin nahiko lituzke

> AMAIA UGALDE

Abarketak ditu berak ere soinean; “publizitate apur bat, badakizu...” dio barrezka. Txaber Arrillaga Munitxak uztailean zabaldu zuen zapata-denda Errekakalen. Gustura dabil zapatari lanetan hasi berri.

Zelan joan da uda zapata dendan?

Ondo, uztaile ondo. Abuztuan igarri da herrian ez dela inor egon, arratsaldetan batez ere. Abuztuan ere zabaltea erabaki dut, berria naizelako eta jakiteko ea jenderik badagoen... Ikasteko, azken finean. Nik ez dut inoiz eduki dendarik, nire ingurukoek ere ez. Nire izekok badauka bat Durangon... Baina niretzako dena izan da berria. Oso pozik nabil.

Zelan, bada, oinetakoen mundura?

Langabezian egon nintzen, sei hilabetez. Hilabete hartu nuen curriculumak bidali eta lana aurkitzeko, eta ezer ere ez. Esaten nuen, “Zer egingo dut? Elorrioren zer falta da?”. Abarketak saltzeko ideiarri bueltak ematen hasi nintzen eta Durangoko izebarekin egin nuen berba. Silero dendakoa da eta etxeko zapatilak, abarketak, dantzetarako sokak... saltzen ditu. Oinetakoak saltzea agian gutxi izango zela, eta konponketak ere egin nitzakeela pentsatu nuen. Horrela joan nintzen Eldara [Alcant] ikastera...

Eldara joatea zelan otu zitzaizun?

Gurasoekin berbetan, aitak esan zidan, “zapaten erreinua Elda da, begiratu ea zer dagoen”. Interneten sartu, eta irakasle bat topatu nuen. Hainbat

ikastaro ematen ditu, eta nik bi hartu nituen: oinetakoak neurritza zelan egin ikastekoa, eta konponketak egitekoa. Bi hilabete eta piku egin nituen han. Orain, praktikagaz, zapatilak ondo konpontzen ikasten nabil, eta gero gustatuko litzaidake zapatilak neurritza egitea. Konpontzerakoan zapatilak zelan eginda dauden ikusten da, eta horrek ideiak ematen ditu geroago oinetakoak egiteko. Politia izan behar da nik egindako gauza bat saltzea.

Elorrioren momentu honetan bi zapatari zaudete, biak Errekakalen. Zer moduz konpontzen zarete?

Oso ondo. Odilok esperientzia handia dauka eta pilo bat laguntzen dit; edozein dudagaz joaten banaiz, oso ondo... Denda egiten hasi nintzeanean, ez nion ezer esan. Behin kaletik ikusi nuen, eta esan nion zer asmo neukan, eta ederto. Berarekin ondo eroan gura dut, ze seguru nago gauza asko ikasi ditzakedala. Esan diot berak ere laguntza edo materiala, edozer gauza behar badu, esateko.

Zer diote lehen bezeroek?

Jendeak lana ondo egin dudala esan izan dit, eta hori ona da, lanerako gogo gehiago ematen dizu. Txarto egiten badut ere, esatea gura dut. Azkenean, nire beharreko nagusiak dendara etortzen diren denak dira. Eurek esaten dute, “egin hau, eta gero ordainduko dizut”. Azkenean, hori egiten du nagusi batek.

Saltzeko, kolore guztietako abarketak daukazazu.

Gauza merkeak saldu gura dut, material onekoak. Abarke-

tak beti ikusi ditut gurean, eta Safari botak ere bai. Udan hori eduki dut, eta negurako pentsatu dut etxeko zapatilak, aterki batzuk, bestelakoak saltzea.

Zer da zuretzat ofizioan gaitzena?

Makinagaz jostea. Eta Odilorentzako ere bai, e? Egun batean esan nion, “makinagaz kokotetako nago!” eta hark: “zeu bakarrik ez, mundu guztia!”. Zapatila bat txarto josten baduzu pilo bat igartzen

da. Astiro eta kontuz josi behar da.

Kalean lehen baino gehiago begiratzendiena orain oinetakoei?

Bai, orain beti begiratzendiet. Gainera, inoiz nik konpondutako pareak ere ikusi izan ditut. Poztasun handia ematen dit konponketa horiekin jendea kaletik dabilela ikusteak.

Irailetik aurrera igarriko duzu mugimendua.

Bai. Aste honetan igarri da jende gehiago dabilela, oporretatik bueltan.

Ea Elorrioko jaietarako jendea abarke-ta bilator-tzen den!



LAUHORTZA

JASONE AGIRRE

Kazetaria



Bizia eta distira

Kapera Sixtinoak mendeetan liluratu izan ditu arte adituak. Kaperako margoetako koloreen inguruan tesiak eta tesinak, liburu potoloak, artikulatuak, milaka hitz eta teoria idatzi izan dituzte urteetan. Michelangelo, Rafael, Botticelli eta enparauek eginiko koloreen aukeraz eztabaidatu izan dute serio, eta sendo, adituek. Lur kolorea dela, grisak

Ustea daukat gainera zikinaren inguruan berba egiten ari direla eta ez azpian dagoenaz

direla... Bakoitzak bere teoria eta bere azalpenak.

Uste batekoa izan, zein beste-koa, inor gutxi ausartu izan da adituon berbon oinarria zalantzan ipintzen... Harik eta kapera zaharberritzea erabaki zuten arte. Orduan etorri zen ustekabe galanta. Garbitzen hasi eta, ez lur kolorerik, ez grisik, ezta antzekorik ere. Kandelen keak, hautsak eta denboraren joanak berak mendeetan pilatutako ugerraren azpian kolore biziak eta distiratsuak aurkitu zituzten denen harridurarako. Ordura arteko teoria, tesi, liburu eta adituen berba guztiak alferrik; lelokeria galant bihurtu ziren egun bate-tik bestera.

Ez dakit zergatik baina krisiaz eta hortik irteteko teoriaren inguruan ezer entzuten dudanean, Kapera Sixtinoa etortzen zait gogora. Ustea daukat gainera zikinaren inguruan berba egiten ari direla eta ez azpian dagoenaz. Zaharberritu beharraz entzun gura nituzke sikieran, ia horren azpian noizbait aurkitzen dugun bizia eta distira.



eLAIA Information Technology S.L.

www.elai.es - 94 640 98 98
Montorreta Ind. E11, 2L - Durango



Kodigoa:
ANBOTO

www.elai.es/netgeniehome



~~124,5€~~
109€*

NetGenie

DENA BATEN

1. Zure seme-alabek Interneten egiten dutena jakitea
2. Interneterako sarbidearen kontrola ordutegiaren arabera
3. Egokiak ez diren webguneetarako sarbidea blokeatzea
4. Web aplikazioen erabilera kontrolatzea
5. Zure ordenagailua kanpoko mehatxuetatik babestea



+ ANTIBIRUS LIZENTZIA

* Webgunean sartu eta kodigoa sartuta balidatutako promozioa

